

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 11

18. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (43. or.).

—Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (52. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-ekintzan sartzeko baldintzak arau ditzan urgentziazko familia-harrera nahiz familia-harrera espezializatua hasten direnentzat. Osoko Bilkurak onetsia (54. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko. Osoko Bilkurak onetsia (54. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko jarduketak egiteko aurrekontu-partida 10 milioi euro handitu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (55. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Lehen Hezkuntzako ikasketak eta ordutegia arautzen dituen foru araudia alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (55. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2019-2020 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarritua, seme-alaben eskolatzearen hizkuntza ereduai dagokienez familiei alde aurretik ezer ezarri gabe eta haiengan eragin gabe. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (56. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea

HITZAURREA

I

Nafarroako toki entitateak eta, zehazkiago, udal eta kontzejuak, Foru Komunitatean errotuen dauden administrazio publikoak dira; era berean, arreta eta zerbitzu instituzionalerako gure lehen lerroa dira, jatorria antzinako garaietan daukatena.

Ordezkatzen dituzten pertsonengandik hurbil daudenez, zuzenean izaten dute gure gizartearen arazo eta eskari nagusien berri, eta beraz, horiei erantzuten eta erantzukizunezko irtenbideak ematen ahalegintzen dira. Halatan, gure errealitate publikoaren eta gure sare instituzionalaren alderdi agerikoena dira.

Esan genezake, huts egiteko beldurrik gabe, haien jarduna dela gure printzipio demokratikoen gauzatze praktiko errealea.

Historikoki eta sozialki hain sustraiturik egoteak, herritarren eskaerei erantzuteko sistemetan gauzatuak, tokiko autonomia zabala ekarri du, finkatzen joan diren eskumenetan islatua; beha-

rezkoa da eskumen horiek etenik gabe sendotu, egokitu eta hobetzea. Nafarroako udalerrien toki-
eskumenek zehatz-mehatz islatzen dute etengabe-
boko eboluzioan dagoen gizarte dinamiko baten
eskariei ikuspegi publikotik erantzuteko kezka
jarraitu bat.

Bestetik, ezin dugu ahaztu gizarteari lehen mailako arreta ematearen lan hori bezain garrantzitsua dela toki erakundeek herritarren eta gainerako erakunde publikoen artean egiten duten zubi-lana; bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez.

Toki-errealitatearen beste alderdi horren emaitza da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean eratu den sare konplexua, eskumenen, harremanen eta araugintzaren banaketaz denaz bezainbatean. Sare hori aztertu eta eguneratu beharra dago, maila instituzional desberdinek izan duten bilakaeraren arabera. Desafio horri erantzutea da foru lege honen helburu nagusietako bat.

Ikuspegi historiko batetik, azken mendeei begiratuta mugarri garrantzitsu batzuk bereiz ditzakegu Nafarroako toki-autonomiaren arau-garapenean. Gai horretaz hitz egitean nahitaezkoa da aipatzea 1841eko Lege Itundua eta 1924ko Udal Estatutua, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itundua, Estatutu hori Nafarroari aplikatzekoa, edo Nafarroako Udalen Administrazioarako 1928ko Erregelamendua, azken hori Nafarroak bere toki erakundeak arautzeko izan duen eskumen historikoa erabili izanaren erakusgarria.

Geroago, beste arau batzuek toki-autonomia egokitu egin dute gure errealitate sozialak denboran izan duen bilakaera saihestezinera: 1979ko uztaileko Araua, Hamaikako, Hamabosteko eta Hogeiko Batzordeei buruzkoa; 31/1983 Foru Legea, Kontzeju Irekiak eratzeari buruzkoa; 4/1984 Foru Legea, Nafarroako Korporazio lokalak erabakiak hartzeari buruzkoa; 1/1986 Foru Legea, Herrilurrei buruzkoa; eta 2/1986 Foru

Legea, Nafarroako entitate lokalen jarduketan legezatasunean eta haien interes orokorrean Nafarroako Gobernuak duen kontrola arautzekoa. Esparru sektorialagoetakoak diren beste arau batzuk ere onetsi dira.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen onespenean eta, urte batzuk geroago, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearenak, ekarri zuen Nafarroako toki-egiturak sakonki egokitzea joan den mendearen amaierako errealitateari. Baliagarria izan zen gure toki-araubide ordena konstituzionalera eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legea egokitzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat.

Ibilbide historiko labur honetan, legeei buruzko aipamenaz gain, merezi du gogoratzea arlo honetako erakunde funtsezko batzuek bete duten lana, hala nola Nafarroako Administrazio Auzitegiak, Kontuen Ganberak edo Nafarroako Arartekoak.

Nolanahi ere, XXI. mendearen hasieratik bertatik argi gelditu da aipatutako arauak berrikusi beharra dagoela; eta, horregatik, gure toki administrazioaren erreforma egitea proposatu da, oinarri hauekin: eskumenen banaketa argia; toki-antolaketa berria ezartzea, udalez gaindiko entitateen ugaltze gehiegizkoa eta, kasu batzuetan, eragingabea arautuko duena (dauden baliabideen azpiezabileria baitakar); eta, azkenik, finantzaketa-eredu berri bat ezartzea, nahikotasun finantzarioaren, aurrekontu-jasangarritasunaren, elkartasunaren, toki-autonomiaren eta lurralde-orekaren printzipioekin bat etorriko dena, horiek baitira Nafarroako toki administrazioari buruzko ikusmolde gaurkotu baten oinarria.

Ezin da aipatu gabe utzi, gainera, azken urteetan aldaketak egin direla administrazio prozedurari buruzko legedian, bai eta erakunde publikoek eta – bereziki– tokikoek espedienteak tramitatzeari buruzkoan, halako moldez non orain beharrezkoa baita giza eta gauza baliabide berriak jartzea, gaur egun ezinbestekoak diren irisgarritasun eta gardentasun printzipioen errespetua ahalbidetuko dutenak.

Erreformaren beharra justifikatzen da, halaber, gure administrazioan erroturik dauden zenbait problema konpontzea nahitaezkoa delako; esate baterako, toki entitate txikienetan idazkari eta kontu-hartzaile zereginekin gertatzen dena: lanpostu gutxi, asko eta asko behin-behinekoak, eta Foru Komunitateko udaletan berebiziko garrantzia

duten lanpostu horietan ari direnen enplegu-segurtasunik eza.

Era berean, honako hau abagunea da gogoeta egiteko, azken urteetan areagotu den arazo bati eta ekartzen dituen ondorioei buruz: bitarteko egoeran dauden langileak gero eta gehiago dira gure toki entitateetan.

Foru lege honek nabarmendu nahi du beharrezkoa dela Nafarroako toki administrazioan enplegu publikoari egonkortasuna ematea eta aldi baterako kontratuen kopurua gutxitzea; arlo horretako neurrien zehaztapena, alabaina, gehiago dagokie erreforma honen gerizpean geroagoko faseetan taxutuz joanen diren legeei.

2011n, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea foru lege proiektu bat aurkez zezan, garai hartan “Nafarroako toki-ko mapa” izenekoaren antolaketa berria proposatuko zuena.

Huts egindako saiakera batzuen ondotik, 2015ean, Nafarroako Gobernuak asmo handiko partaidetza-prozesu baterako oinarriak aurkeztu zituen, bertan planteaturik kontsultak egitea toki entitateekin bi urteko epean eta aldez aurreko dokumentuak prestatzea, legegintzako proposamen honen abiapuntua izan zitezten.

Prozesu hori Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak gidatu du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, zeinak toki entitateekiko solaskide lana bete baitu, haien eskaerak eta proposamenak bideratzeko.

Haiekin batera, Nafarroako Gobernuko departamentuek ere parte hartu dute prozesuan, baita toki administrazioaren arloko sektore desberdinetako aditu ugari ere, aurreproiektuaren prestaketarako beren ikuspegi eta ezagutzak eskaini dituztenak.

Lehen aipatutako irizpideekin batera, hortaz, partaidetzarena eta gardentasunarena ere aintzat hartzekoak dira foru legea egiteko prozeduran, eta denen artean osatzen dute erreforma honen oinarria, erreforma onesten denetik Nafarroako toki entitateek abian jarriko dituzten aldaketa sakonei helduleku izan den esparru egokia.

Horretarako, gure toki administrazioa arautzen duten lege nagusietan aldaketa funtsezkoak egiten dira, eta horien onespeneri esker, arau-aldaketak egiteko epe bat hasten da, xehetasun guttiarekin zehaztuko dutenak toki erreforma honen behin betiko forma.

Egiturari dagokionez, foru lege honek lau artikulatu ditu: lehenbizikoak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen du; bigarrenak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; hirugarrenak, Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea; eta laugarrenak, azkenik, abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu eta jardura ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eguneratzen dituena.

II

Lehen artikulua edukiaz hau nabarmendu behar da:

– Eskualdeak eta plangintza orokorreko komunitateak Nafarroako toki entitate hartzen dira, eta toki entitatearen izaera zuten barruti administratiboak eta partzuergoak desagertzen dira; horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen konpromisoa betetzen da, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak 2015eko irailaren 9an onetsitako Erabakiaren bidez bere gain hartu zuena.

Administrazio zerbitzuen batasunak ere ez dira toki entitate izanen aurrerantzean, baina haien lurralde esparrua erreferentzia gisa hartzen ahalko da kasuan kasuko eskualdeak zerbitzu horiek emateko.

– Nafarroako toki erakundearen arloko usadioan toki entitate giltzarri den kontzejuari dagokionez, baimendu egiten da kontzeju irekia eratzea 50 biztanle baino gehiago dituztenetan, baldin eta borondatez halakotzat eratzea erabakitzen badute; era berean, batzar bidez funtzionatzen ahalko dute kontzeju irekiko araubidean jarduten duten kontzejuek, baldin eta kontzejuko kideen erabateko gehiengoaren bidez hala erabakitzen badute.

Batzar bidez funtzionatzen duten kontzejuen kasuan, batzarkideen kopurua 6koa izatera igo dadin ezartzen da, haien populazioa 1.000 biztanle baino gehiagokoa denean.

Halaber, berriaz aurreikusten da kontzejuko lehendakariaren kontrako zentsura mozioa aurkezteko aukera, eta toki entitate horri auzolana edo komunitatearen onurarako lana antolatzeko ahalmena ere aitortzen zaio, Nafarroako toki ogasunen gaineko araudian aurreikusita dagoen bezala.

Kontzejuak dituzten udaletan, kontzejuen interesei zuzenean eragiten dieten gaitan, eskubidea bermatzen zaie gai horiei dagozkien erabakiak hartzeko prozesuan eta kudeaketaren jarraipenean parte hartzeko, kontzejuen parte-hartzerako kontsulta-organo espezifiko bat sortuz.

Horrekin batera, kontzejuen eta udalaren arteko harremanetarako sistema bat tankeratzen da, tokiko autonomiaren printzipioa errespetatuz eskumen-egikaritze partekatua ahalbidetuko duena, eskaturiko gutxieneko zereginak modu autonomoan betetzerik ez dagoenean kontzeju-administrazioetan eskuragarri dauden giza eta gauza baliabideekin. Horrela, kontzejuen iraupena ziurtatzeko zailtasunak gainditzen dira, eta, aldi berean, hobetu egiten da bertako biztanleei ematen zaien zerbitzua; dudarik gabe, erreforma honek azken batean duen helburuaren barnean dagoen lorkizuna.

Azkenik, kontzejuak azkendu ahal izateko arrazoietatik kendu egiten da haien biztanle kopurua, eta arrazoiaren artean sartzen da, ordea, bi kontzeju-hauteskunde jarraitu hautagai-zerrendarik ez aurkeztea.

– Langileei dagokienez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 234. artikulutik 257. artikulura bitartekoak aldatzeak, lehen eta hirugarren xedapen gehigarriak indargabetzeak eta martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen, hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak indargabetzeak, ahalbidetzen du behin betiko konponbidea ematea Nafarroako udalerrietako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu asko ukitzen dituen problemari; hau da, bitarteko egoera iraunkorari. Horretarako, gure toki entitate guztietako idazkaritza eta kontu-hartzailetzako administrazio zerbitzuetan jarduna hertsiki funtzionarioen bitartekoa izatea ziurtatuko da.

Idazkari-lanpostu propioa izatea beharrezkotzat ezartzen da 1.500 biztanle baino gehiagoko udaletan, ez orain arte bezala 2.000 biztanle baino gehiagokoetan, eta oposizio-lehiaketa ezartzen da Foru Komunitatearen gaikuntza lortzeko sistema bakar gisa idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan aritu ahal izateari begira. Jabetza-hartzearen araubidea ere egokitzen da, bat etor dadin Lanpostuak Betetzeko Erregelamenduan eta Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak sartzeko Erregelamenduan orokortasunez aurreikusitakoarekin.

– Era berean, aldatu egiten dira Nafarroako Administrazio Auzitegiari aurkezturiko gora jotzeko errekursoari dagozkion zenbait agindu, horien testua egokitzearen administrazioarekiko auzien

jurisdikzioaren gaineko araudiari eta isiltasun administratiboaren araubide orokorrari.

– Toki antolaketaren egiturari dagokionez, foru lege honek udalez gaindiko antolaketa berria dakar “eskualde” izeneko figuraren bitartez, zeina Nafarroako Udal Administrazioaren Erregelamenduan “nahitaezko batasun” deitutakoaren ondorengo baita, eta aurrerantzean bere gain hartuko ditu mankomunitate sektorial ezberdinek eta gure Foru Komunitatean azken urteotan sortutako antzeko beste entitate batzuek orain arte bete izan dituzten eginkizunak.

Nafarroak toki araubidearen arloan izan duen eskumen historikoa baliatzen da horrela; zehazki, udalez gaindiko entitateak ezartzeari dagokionez, hala aitortzen baitu Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Foru Legearen 46. artikulua, honakoetan xedatutakoarekin lotuta: Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduaren 13. oinarrian, eta 1928ko otsailaren 3ko Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamenduen 55. artikuluan eta hurrengoetan, indarrean baitzegoen Foru Hobetzea onetsi zen unean.

Horrela, lortu nahi da udalez gaindiko kudeaketarako toki zerbitzuen antolaketa hobetzea, bere xedeak lortzeko eraginkorragoa izan dadin eta efizientzia handiagoa izan dezan bere giza nahiz gauza-baliabideen aprobetxamenduan, betiere errespetatuz udalen eskumen esparrua eta toki autonomia.

Halatan, eskualdearen eskumen propio gisa tankeratzen dira artikulua honen 361.1 artikuluan jasotakoak, baina eskumen horiek ez dira inola ere izanen oinarritzko araudiaren arabera udalerrien eskumen propioak direnak. Horrez gain, eskualdeek zilegi izanen dute eskuordetze bidez esleitzen zaizkien beste batzuk ere egikaritzea.

Ildo horretan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean titulu berri bat gehitzen da (X. titulua), “Eskualdeak” izenekoak, sei kapitulutan antolatutako hogeita hamabi artikulutan zehar toki entitate berri honi dagokion guztia garatzen duena.

Eskualdeak eratzeko proposamenaren muinean datza udalez gaindiko zerbitzuen plangintza sektorial batetik horien planteamenduari buruzko lurralde-ikusmolde baterako iragatea, lurralde orekaren printzipioa indartzen duena. Ikusmolde berri honi esker, udal batek berak egin edo eman ezin dituen zenbait jarduera eta zerbitzu, orain arte subjektu edo entitate pribatuekin kanpo kontratazioak eginez eman izan direnak horrenbestez, eskualdeak emanen ditu zuzenean, halatan

nabarmen gutxituz sektore pribatura zuzentzeko joera, eta kalitatezko zerbitzu-ematean ekimen publikoa sustatuz.

Horrela, gaur arte indarrean egon den ikusmoldeari kontrajarririk, zeina baita mankomunitateak zerbitzu sektorialen inguruan antolatzea, eskualdeak uneoro lurraldeari egiten dio erreferentzia; hortaz, Nafarroa barruti egonkorretan egituratzen da, eta ezartzen direnetik aurrera erreferentzia saihestezin izanen dira udalez gaindiko esparruan eman nahiko den edozein zerbitzutarako.

Foru lege honen eranskinetan zehazten denez, Nafarroa hamabi eskualdetan antolatzen duen lurralde-banaketa ezartzen da, Nafarroako Lurralde Estrategiak bere garaian proposatutako azpiekimenak abiapuntutzat hartuta; nolana ere, behin betiko tankeratzeari begira, inplikaturako udalen borondatea kontuan hartzen da, proposamenak eta alternatibak aurkezteko aukera izanen baitute, xedea izanik eskualdeak sortzeko prozesuaren bukaeran Nafarroako udal guztiak horietakoren batean sartuta egotea.

X. titulu berriaren I. kapituluak toki entitate berri hauen izaera eta xedeak arautzen ditu, bai eta haien ahalmenak, izena, eskualdearen mugartea eta zerbitzuen egoitzak ere.

II. kapituluan jasotzen da eskualde bakoitza sortzeko prozesuaren araubidea. Foru lege bidez egin beharko da, eskualdea osatu behar duten udalei eta udalez gaindiko entitateei entzunaldia ematea eta haien parte-hartzea bermatzen duen prozedura baten bidez.

III. kapituluan eskualdeen eskumenak eta zerbitzuak arautzen dira, eta zerbitzu bereki gisa hauek ezartzen dira: udalez gaindiko mailan eman beharreko gizarte zerbitzuak; uraren goi hornidurarako sareak, udalez gaindiko mailakoak; hondakinen tratamendua, udalez gaindiko mailakoa; eskualdeko planeamendua eta eskualde mailako lurralde antolamenduko tresnen kudeaketa, bai eta idazkaritza eta kontu-hartzailetzako zerbitzu administratiboak ere kontzejuen kasuan, baterako eskumen-kudeaketari buruzko araubiderik ez dagoenean eta 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan, hurrenez hurren.

Eskumen berekiez gain, eskualdeak ur edan-garriaren behe hornidurako zerbitzuak emanen ditu, hondakin uren ebakuazio eta tratamendukoak, eta hiri hondakin solidoen biltzea eta kudeaketak; izan ere, orokorrean mankomunitateak dauken zerbitzuak dira. Salbuespena: eskumenaren titular diren udalerriek bertan behera uztea kasuan kasuko mankomunitateari eginiko eskuordetzea.

Eskualdeek halaber zilegi izanen dute legeria sektorialak Foru Komunitateko Administrazioaren eskumen esparruan bereki gisa esleitzen dizkien eskumenak egikaritzea, bai eta sostengua eta laguntza ematea beren lurralde esparruko udal eta kontzejuei, bereziki ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen urriagoa dutenei; horrez gain, eskualdeek beren esparruko toki entitateei haiek eskaturiko beste zerbitzu batzuk ematen ahalko dizkiete, jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzuetakoak egiteko eskuordetze edo gomendio bidez.

Beraz, orain ere modu mankomunitatean egiten diren zeregin batzuk udalez gairik mailan planteatzea da helburua, eta beste batzuk deszentralizatzea, lurraldearen antolamendua kasu, eskualdeen antolaketari dagokionez.

Bestalde, IV. kapituluak aurreikusten du azpieskualdeak ezartzeko aukera, eskualde bateko udalerrri batzuek, ez denek, ezaugarri sozial, geografiko edo administratibo komunak dituztenean, besteetatik argi bereizten dituztenak baina eskualdea osatzerainoko moduko nolakotasunik ematen ez dutenak.

V. kapituluak ezartzen du eskualde bakoitza eratzen duen foru legeak indarra hartzean zeuden udalez gairik entitateen araubidea; mankomunitateek eta udalez gairik entitateek egun dituzten langile guztiak eskualdeetan antolaturik geldituko direla xedatzen da bertan (ohiturazko elkarteei dagokiena salbu), eta, halaber, sozietate publikoak mantenduko direla; azkenik, ziurtatzen da egungo azpiegitura-sareen titular izanen dela zerbitzu hori egun ematen duen mankomunitatearen ondorengoa den eskualdea.

VI. kapituluak eskualdeen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dira, eta ezartzen da eskualde guztietan beharrezkoak diren organoak eskualde-batzarra, lehendakaria eta gobernu batzordea izanen direla.

Eskualde-batzar bakoitzeko kide kopurua eskualde bakoitzerako ezarriko da, haren sorrerarako foru legean. Sorrerarako foru legeak besterik xedatu ezean, kide horiek hautatzeko sistema izaera mistokoa izanen da: udalek ordezkari batzuk hautatuko dituzte, eta beste batzuk, berriz, hautatuko dira alderdi, koalizio, federazio eta hautesle-elkarte ezberdinek eskualdean lortutako boto kopuruaren proportzioan. Bi kasuetan, batzarreko kide izateko hautatuek zinegotzi beharko dute izan.

Horren arrazoia da eskualdea bigarren gradu edo mailako toki entitatetzat jotzen dela, udalen oinarriko lehen mailaren menpekoa; horren ondo-

ria da haren gobernuak bermatu behar izatea ordezkarien gehiengoak udalek beraiek hautaturiko kargudunetz osaturik egotea, nahiz eta ez ezinbestean haiek bakarrik osaturik egotea.

Azkenik, eskualdeen zerbitzuko langileen araubideari dagokionez, ezartzen da uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluan orokortasunez xedatutakoa beteko dela, eta eskualdeak idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu espezifikoak izan beharko dituela, Foru Komunitatearen gaikuntza aski izanen dutenak.

III

Foru lege honen bigarren artikulua toki entitateen finantzaketa sistema berritzen du, eta, horrenbestez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen ditu, eta legea bera lurralde egitura berrira egokitzen da, eskualdeen eta plangintza orokorreko mankomunitateen baliabideak arautzearekin.

Erreforma honek eragina du bai toki ogasunen funtsetan (transferentzia arruntak nahiz kapital-transferentziak), bai udal tributuetan. Helburua da toki entitateen eskumenei eta betebeharrari aurre egiteko moduko askitasun ekonomikoa bermatzen duen finantzabidea lortzea, Nafarroako lurralde orekaren eta kohesioaren printzipioa ikusgai jarriko duena eta udalerrien arteko elkartasunari balioa emanen diona. Udalerriek gehiegizko alde-bakartasuneko ikuspegiak gairiditu eta finantzaketa eta baliabideak amankomunean jarri beharko dituzte, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuen hobekuntza betiere lurralde osoan gerta dadin.

Era berean, gure toki erakunde heldutasuna aintzat hartzea planteatzen da, nabarmen gutxituz Nafarroako Gobernuak Toki Ogasunen Funtsean zerbitzu finalistak finantzatzeko den partearen kudeaketan eta bideraketan daukan esku-hartzea.

Foru legeak printzipio bezala ezartzen du Toki Ogasunen Funtsa zuzkitzea Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu diru-sarreraren portzentaje finko eta egonkor baten arabera, horrela erantzuna emanez toki entitateek tributu diru-sarrera horietan parte hartzeko duten eskubideari.

Parte-hartze portzentajearen zenbateko zehazta aurrerago erabaki eta ezarriko da beste araubidean, hura kalkulatzeko behar diren azterketak egin ondoren. Lan horren bidez halaber bilatuko da premiazkoa den eskumen-zedarritze eta -deskorapilatze bat egitea, kontuan hartuta gaur den egunean toki- eta foru-mailen artean teilakatu-ta agertzen direla eskumen horiek.

Bestalde, eskualde mailako katastro-balorazio-ko ponentziak egiteko aukera ezartzen da, eta xedatzen da balorazio-ponentziak eguneratzearen betebeharrak urratu izanaren ponderazioa kontuan hartua izan dadila Toki Ogasunen Funtsetan banaketan.

Orobat, portzentaje-tarte berri bat ezartzen da, ehuneko 0,25etik 0,50era bitartekoa, bai hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasa zehazteko bai bizilagunik gabeko etxebizitzaren gaineko zergaren lehen urtea finkatzeko; eta horrek dakar abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aldatu beharra, laugarren artikuluan jasotzen denez.

IV

Foru lege honen hirugarren artikulua, halaber, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea ere aldatzen du, eskualde mailako katastro-balorazio-ko ponentziak egitea ahalbidetzeko, arestian adierazi bezala.

Amaitzeko, esan beharra dago foru lege honek indarra hartzeak erreferentzia-esparru berri bat ezarriko duela Nafarroako Toki Administrazioarentzat, eta horrekin batera berritze-prozesu sakon bat hasiko duela, hemen ezarritako printzipioak mamituko dituzten arauetan gauzatzen joan dena.

Lehen artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 3. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“3. artikulua.

1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

a) Eskualdeak.

b) Kontzejuak.

c) Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkartea eta foru lege honek indarra hartzen duenean herri ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalek.

d) Udalen mankomunitateak.

e) Plangintza orokorrerako mankomunitateak.

2. Foru Komunitateko Administrazioak erregistro bat sortuko du, eta bertan inskribatu beharko dira toki administrazio guztiak, erregelamenduz ezarriko diren datu guztiekin”.

Bj. 19. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“19. artikulua.

Udal-mugarten aldakuntza-prozesuen ondorioz azkentzen diren udalerriak kontzeju gisa gelditzen ahalko dira prozesuaren ondoriozko udal berriaren barrenean sartuta, baldin eta frogatzen badute foru lege honen 39. artikuluan aurreikusitako eskumenak egoki betetzeko behar adina baliabide dituztela”.

Hiru. 31. artikuluko 3. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“31. artikulua.

3. Udalerriek Nafarroako Gobernuari eskatzen ahalko diote gutxieneko zerbitzuak ematearen betebeharratik salbuesiak izatea, legeria orokorrean aurreikusitakoarekin bat. Nafarroako Gobernuak ezarriko du zein entitatek hartuko duen bere gain salbuespenaren xede den zerbitzua, zerbitzu hori modu egokian ematen dela bermatzeko. Zerbitzuaren ezarpena eta zerbitzu-ematea eskualdeari esleitzen ahalko zaizkio.

Salbueste-erabakian ezarriko dira bidezko diren baldintzak eta diru ekarpenak.

Legeria orokorrean ezarritakoez gain, mugartean kontzejuak dituen udalerrira kontzeju horiei zerbitzuak emateko betebeharratik salbuesteko berariazko arrazoia izanen da kontzeju horiek zerbitzu horiek emateko aski baliabide izatea, beren ondasunen ustiapenari esker; halakoetan, zerbitzu-ematearen betebeharrak kontzeju horiena izanen da.

4. Zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko, eskualdeak edo Nafarroako Gobernuak laguntza, lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa emanen die artikuluko honen lehen apartatuan aipatzen den salbuespena lortu duten udalerriei, gutxieneko zerbitzuak emateko betebeharrak kentzen duen hori lortu dutenei”.

Lau. 33. artikuluko edukia osorik kentzen da.

Bost. 35. artikuluko 3. apartatuko b) eta c) letrak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“35.3. artikulua.

b) Beste edozein toki entitate eratu eta aldatzeko espedienteetan nahitaezko txostena ematea.

c) Bere ekimenez edo Nafarroako Gobernuak nahiz Toki Administrazioako Departamentuak eskatuta, azterlanak, txostenak edo irizpenak egitea udal- edo eskualde-mugarteak berrikusteaz edo aldatzeaz, bai eta, oro har, eskualde-, udal- edo kontzeju-maparen edozein aldaketaz ere”.

Sei. 36. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“36. artikulua.

Erregelamenduz ezarriko da Lurralde Mugaketarako Batzordearen osaera, antolaera eta funtzionamendua. Betiere, honako hauek batzordeko kide izanen dira:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak.

b) Udalerrien, kontzejuen eta eskualdeen ordezkariak, bertako elkarteek izendatuak.

Horretarako, toki entitate horietako bakoitzaren ordezkariak bermatu beharko da, bai eta eskualde bakoitza osatzen duten toki entitateen ordezkari bat gutxienez egotea.

c) Dituzten helburu eta xedeak direla-eta Nafarroako lurralde antolaketarekin zerikusi berezia edo hartan eragin berezia duten erakunde publiko edo pribatuaren ordezkariak”.

Zazpi. 37. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“37. artikulua.

2. Kontzejuaren izaerako toki entitatea izateko, frogatu beharko da foru lege honen 39. artikuluan aurreikusitako eskumenak egoki betetzeko behar adina baliabide edukitzea. Baliabideak behar adinakoak direla ulertuko da kontzejuak aski sarrera duenean, propioak nahiz Nafarroako Gobernuaren eragandiko edo kontzejuak sartzen deneko udalaren eragandiko transferentzia arrunten bidezkoak. Edozein kasutan ere, Nafarroako Gobernuari dagokio baliabide-askitasun hori baloratzea”.

Zortzi. 38. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

Lehena. 3. apartatuak testu hau izanen du:

“3. Kontzeju irekia eratuko da 50 biztanle baino gutxiago dituzten kontzejuetan, edo bizilagun

gehiago izanik beren borondatez hala eratzea erabakitzen dutenetan, Batzarrak legezko bere kideen erabateko gehiengoz kontzejuetarako hauteskundeen deialdia baino lehen hartutako erabakiaren bidez. Horren berri eman beharko diote Foru Komunitateko Administrazioari.

Kontzeju irekiak lehendakaria izan beharko du, eta, lehendakariaren gain, hauteskundeak egiten diren unean bertako udal erroldan inskribatuta dauden kontzejuko egoiliar guztiek osatuta egon da.

Kontzejuko lehendakariak kontzeju irekiko kide bat izendatuko du, kanpoan edo gaixorik egotearen kasuan bere ordezkari izan dadin”.

Bigarrena. 4. apartatuak testu hau izanen du:

“4. Batzarra osatuko dute, 1.000 biztanle baino gutxiagoko kontzejuetan, lehendakariak eta lau kidek; eta, 1.000 biztanleko edo gehiagoko kontzejuetan, lehendakariak eta sei kidek.

Lehendakariak Batzarreko kide bat izendatuko du, kanpoan edo gaixorik egotearen kasuan bere ordezkari izan dadin”.

Hirugarrena. 5. apartatu berria gehitzen da, testu hau izanen duena:

“5. Batzarra eduki ahalko dute, halaber, kontzeju irekiaren araubideko kontzejuak, baldin eta hala erabakitzen badute legezko beren kideen erabateko gehiengoz, kontzejuetarako hauteskundeen deialdia baino lehenago hartutako erabakiaren bidez. Horren berri eman beharko diote Foru Komunitateko Administrazioari”.

Bederatzi. 39. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

Lehena. 2. apartatuak testu hau izanen du:

“2. Kontzejuak berak egin eta ematen ahalko ditu, bere kargura, Kontzejuko komunitatearen interesekoak baizik ez diren obrak eta zerbitzuak, udalak ez baditu haiek egin edo ematen.

Nafarroako kontzejuak auzalana, auzolana edo artelana antolatzen ahalko dute, edo kontzejuko komunitatearen onurarako lana, auzobideak eta landabideak egin, konpondu eta hobetzeko, bai eta, oro har, beren eskumeneko obrak egiteko, toki ogasunak arautzen dituen foru araudian ezarritakoarekin eta kasuko ordenantzak xedatzen duenarekin bat”.

Bigarrena. 39. artikulua 4. apartatu berria gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“4. Mugartean kontzejuak dituzten udaletan, kontzejuari eskubidea bermatu beharko zaie haien

interesei zuzenki eragiten dieten gaietako erabakihartze prozesuan parte hartzeko, bai eta horien kudeaketaren segimenduan ere.

Parte-hartze hori ziurtatzeko, udalak kontzejuen parte-hartzea izanen duen kontsulta-organo bat sortuko du, eta organo hori baliatuko da udalaren eta udal-mugarteko kontzejuen arteko informazio etengabea izateko; horrekin batera, organo horren bitartez kontzejuak plangintza eta programazioko tresnak izanen ditu eskura, eta parte hartzen ahalko du, hitzarekin baina botorik gabe, kasuan kasuko kontzejuaren interesari eragiten dioten gaiak eztabaidatu behar diren ordezkaritza organoetan”.

Hamar. 41. artikuluko lehen apartatuari letra berria gehitzen zaio (f letra), testu honekin:

“41. artikulua.

“f) Kontzejuko lehendakariaren kontrako zentsura mozioa aurkeztea, Hauteskundearen Araubide Orokorren Lege Organikoan udalerrietarako aurreikusitakoaren antzera.

Zentsura mozio hori kontzejua parte den udalako idazkaritzan formalizatu beharko da, eta batzarreko kideen erabateko gehiengoak sinatu beharko du; edo, kontzeju irekien kasuan, auzo-batzarra osatzen duten pertsonen erabateko gehiengoak”.

Hamaika. 42. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“42. bis artikulua.

1. Foru lege honen 30. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa ukatu gabe, toki entitate guztien legezko betebeharrak bete daitezten eta egun dauden egitura administratiboak baliatzearen, kontzejuen eskumenen kudeaketa konpartituko sistema bat hitzartzen ahalko dute zeinek bere udalarekin, artikulua honetan ezarritako araubidearekin bat, betiere zehaztapen hauek jasota:

a) Kontzejuaren tasei, kontribuzio bereziei eta beste edozein baliabide ekonomikorik buruzko erabakiak Kontzejuko Batzarrak hartuko ditu edo, kasua bada, Kontzeju Irekiak.

b) Kontzejuaren baliabide ekonomikoak erabiliko dira Kontzejuko Batzarrak edo, kasua bada, Kontzeju Irekiak erabakitako jarduketarako.

c) Kontzejuak erabakitako jarduketak gauzatzeko beharrezkoak diren kontratu eta gainerako prozedura administratibo nahiz kontabilitatekoak bere udalak tramitatuak izanen dira.

2. Edozein kasutan, udalak ez badu onartzen bere mugarteko kontzeju batekin hitzartzea esku-

menen kudeaketa konpartituko sistema, udala parte den eskualdeak hartzen ahalko du bere gain.

3. Araubide honi atxikitako kontzejuetan, kontzejuaren ondarea kudeatu eta administratzeko egintzei aplikatu beharreko administrazio-, aurrekontu- eta kontabilitate-prozedurak, hala nola herri ondasunak edo beste ondasun higiezin batzuk eskuratu, besterendu, erabili, ustiatu edo esleitzea, edo haien kalifikazio juridikoa aldatzea, udalak tramitatuak ditu, Kontzejuko Batzarrak edo, kasua bada, Kontzeju Irekiak hartutako erabakiekin bat.

4. Kudeaketa gastuen kontraprestazio gisa, udalak, edo kasua bada eskualdeak, jasoko du kontzejuarekin adosten duen zenbatekoa edo kontzejuaren diru-sarreraren portzentajea, kasuko hitzarmen arau-emilean ezartzen denarekin bat.

5. Kontzeju batek erabakitzen badu eskumenen kudeaketa konpartituko sistema honi atxikita egoteari uztea, aurretik frogatu beharko du bete egiten dituela administrazio prozedurak tramitzeko eskatzen diren legezko betebeharrak, administrazio prozedura erkidea arautzen duen legeriarekin bat.

Kontzejua sistema horren barruan dagoen bitartean, udalaren erregistro eta artxibo elektronikoen erabiliko dira kontzejuaren izenean eta kontura jarduteko”.

Hamabi. 44. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“44. artikulua.

1. Honela azkenduko dira kontzejuak:

a. Kontzejuko bizilagun egoiliarren gehiengoak idatziz eskatuta.

b. Kontzejuko gobernu organoak eskatuta, haren kideen legezko kopuruaren bi hereneko gehiengoak hartutako erabakiaren bidez.

c. Kontzejuetarako elkarren segidako bi hauteskundetan hautagai-zerrendarik aurkeztu ez denean, hauteskunde horien kontaketa kontuan hartu gabe hauteskunde partzialak.

Kontzejuak bere eskumenak erabiltzeko eta berezko dituen xedek betetzeko behar adinako baliabide ekonomikorik, materialik edo giza baliabiderik ez duela agerikoa denean.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio kontzejuen azkentzea dekretatzea, ukitutako kontzejuari eta udalari entzunaldia eman ondoren eta Lurralde Mugaketarako Batzordeak txostena eginda. Azkentzeari buruzko foru dekretua Nafarroako

Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Estatuko Administrazioari igorriko zaio, Toki Entitateen Erregistroan inskripzioa egiteko”.

Hamahiru. 45. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“45. artikulua.

3. Ohiturazko elkarteek bere gain har dezake, eskuordetze araubidean, zerbitzuak emateari edo jarduerak betetzeari dagozkien udal eskumen guztien egikaritzea, baldin eta eginkizun horiek kasuko eskualdeak ez baditu bere gain hartu”.

Hamalau. 46. artikulua 46. artikulua osorik kentzen da.

Hamabost. 53. artikulua 53. artikulua osorik kentzen da.

Hamasei. 62. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“62. artikulua.

Foru Komunitateko Administrazioak laguntza eta lankidetzak juridiko, ekonomiko, administratibo eta teknikoko zerbitzuen ematea bultzatuko du, beharrezkotzat jotzen dituen lanabesen bitartez toki entitateen kudeaketa-ahalmena indartzeko. Ondorio horietarako, zerbitzu horiek kasuko eskualdeak bere gain hartzea sustatuko da”.

Hamazazpi. 65. artikulua 65. artikulua lehen apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“65. artikulua.

Toki Araubideko Foru Batzordeko burua Nafarroako Gobernuan toki araubidearen arloko eskumena duen kontseilaria izanen da, eta batzordearen osaera erregelamenduz zehaztuko da. Edonola ere, honako hauek batzordeko kide izanen dira:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren zazpi ordezkari.

b) Udal, kontzeju eta eskualdeen hamabost ordezkari, bertako elkarteek izendatutakoak. Horretarako, bermatu beharko da toki entitateen mota horietako bakoitzaren ordezkari egotea Batzordean, eta, horrez gain, eskualde bakoitza osatzen duten toki entitateen ordezkari bat guztienez egotea.

Era berean, idazkari bat izanen du, batzordeko buruak kideen artetik hautatuko duena, eta burorde bat, batzordeko buruak toki-ordezkarien artetik hautatuko duena, ordezkari horiek proposamena egin ondoren”.

Hemezortzi. 90. artikulua 90. artikulua osorik kentzen da.

Hemeretzi. V. tituluko III. kapitulua aldatzen da. Hona testu berria:

“III. KAPITULUA

Partzuergoak eta plangintza orokorrerako mankomunitateak

212. artikulua. Partzuergoak

1. Toki entitateek zilegi izanen dute bestelako administrazio publiko batzuekin partzuergoak eratzeari interes amankomuneko xedeetarako, edo toki administrazioen interesekin bat datozen interes publikoko xedeak dauzkaten elkarte, fundazio edo entitate pribatuekin.

2. Partzuergo horiek berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitate publikotzat joko dira. Beren eskumeneko zerbitzuak ematen ahalko dituzte toki araubideko legerian aurreikusitako edozein bide erabiliz. Partzuergoa eratzeko, udalaren esku uzteko tramitea bete beharko da aurretik, partzuergoaren xedea denean tramite horri loturiko zerbitzu edo jarduerak eman edo egitea.

3. Aurreko bi apartatuetan xedatutakoari jarraituz tankeratutako partzuergo bakoitza bere gobernu organo gorenean boto kopuru handiena duen administrazio publikoari atxikiko zaio aurrekontu ekitaldi bakoitzean.

Administrazio batek baino gehiagok boto kopuru bera dutenean, berdinketa kasuetarako kalitateko botoa duena hautatuko da. Halakorik ezean, artaturiko bizilagun gehien edo lurralde zabalena duen administrazioari atxikiko zaio, partzuergoaren estatutuetan definitutako xedea zein den; hots, pertsonen zerbitzuak ematea edo lurraldearen gaineko jarduketak garatzea.

4. Partzuergoaren estatutuek, onetsi aurretik, jendaurrean egon beharko dute hamabost egunez, eta zehaztu beharko dute partzuergoaren araubide organikoa, funtzionala eta finantzarioa, bai eta helburuak ere.

5. Nazioarteko partzuergoen kasuan, gaiari buruz Estatuko legerian xedatutakoari jarraituko zaio”.

213. artikulua. Plangintza orokorrerako mankomunitateak.

1. Nafarroako toki entitateak eta Foru Komunitateko Administrazioa plangintza orokorrerako mankomunitate gisa eratu ahalko dira, toki eskumeneko zerbitzuen ematea koordinatzeko, aplikatuko

tzekoa den legeriak administrazio hari aipatu eginkizuna nahitaezko gisa esleitzen dionean.

2. Koordinazioaren xede den gaiari erreparatuta, hartan parte hartuko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, eskualdeek eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek; hartan sartu ahalgo dira, halaber, 20.000 biztanle baino gehiagokoak izan eta hala eskatzen duten udalerriak.

3. Foru lege bidez, zerga arloko ikuskaritzan, diru-bilketan eta kudeaketan eskumenak esleitzen ahal zaizkio plangintza orokorrerako mankomunitateari, dauzkan eginkizunei eta, kasua bada, ematen dituen zerbitzuei dagozkienak.

4. Plangintza orokorrerako mankomunitateek nortasun eta gaitasun juridikoa dute beren xede espezifikokoak betetzeko, eta beren estatutu propioak dauzkate arau.

5. Plangintza orokorrerako mankomunitate bat sortzeko eta haren lurralde-esparrua zehazteko ekimena Foru Komunitateko Administrazioarena izanen da, toki eskumeneko zenbait zerbitzuren ematea koordinatzeko dauzkan ahalmenen indarrez.

6. Aurreko apartatuan aipatzen den ekimena Nafarroako Gobernuaren erabakiz abiatuko da. Dagokion erabakia hartuta, Toki Administrazioaren arloko departamentu eskudunak hura plangintza orokorrerako mankomunitateko kide izanen diren toki entitate guztiei bidaliko die, bidezkoztat jotzen dituzten alegazio, eragozpen eta oharrak aurkez ditzaten hura jaso eta bi hilabeteko epean, norbere gobernu-organo gorenak hartutako erabakiaren bidez, eta estatutuak egiteko prozesurako ordezkari bat hauta dezaten.

Toki entitateak epe horretan ez badu erabakirik hartzen edo erabakirik jakinarazten, ulertuko da ez duela eragozpenik plangintza orokorrerako mankomunitatean sartzeko.

Aipatutako epea iraganda, Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, kasuan-kasuan aurkeztu diren alegazioak ebatziko ditu, eta plangintza orokorrerako mankomunitatearen estatutu-proiektua idatziko duen Batzordeko kide izanen diren Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen ordezkariak hautatuko ditu.

7. Plangintza orokorrerako mankomunitateen estatutuak egiterakoan honako arau hauek beteko dira:

Lehen. Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak eta hartan sartu behar duten toki entitateen ordezkari banak osatutako batzorde batek

hasierako proiektu bat egingen du, aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Baldin eta kasuan kasuko koordinazioaren xede den zerbitzua toki entitateek udalez gaindiko toki entitate bati esleituta badago, eta eskualdeak eratzten ez diren bitartean, toki entitate horien ordezkariak udalez gaindiko entitateko buruak izanen du, edo hark eskuordetutako pertsonak.

Bigarrena. Proiektua hilabetez jarriko da jendaurrean Nafarroak Interneten duen gobernu irekiaren atarian eta plangintza orokorrerako mankomunitatea osatu behar duten toki entitateen idazkaritzetan, kasuan kasuko iragarki-oholetan aurrez iragarkia jarrita.

Hirugarrena. Kasua bada, aipatutako batzordeak ebatziko ditu jendaurreko fasean aurkeztu diren alegazio, eragozpen edo oharrak, eta estatutuen behin betiko proiektua egingen da.

Laugarrena. Estatutuak Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez onetsiko dira.

Bosgarrena. Estatutuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

8. Estatutuen aldaketari aplikatuko zaizkio haien onespenerako ezarritako arau berak, 1. eta 3. arauetan aurreikusitako jarduketak izan ezik; izan ere, horiek plangintza orokorrerako mankomunitatearen gobernu-organo gorenak egingen ditu.

9. Plangintza orokorrerako mankomunitatea degesiteko hura sortzeari buruz artikulua honetan ezarritako arau berak bete beharko dira, lurralde-eremua zehazteari dagokiona eta toki entitateen ordezkariak izendatzeari buruz egindako aurreikuspenak izan ezik.

10. Estatutuak onetsi eta plangintza orokorrerako mankomunitatea eratu ondoren, plangintza orokorrerako mankomunitatean parte hartzen duten toki entitateek, guztien artean, gobernu-organo gorenean botoen gehiengoa edukiko dute beti. Gobernu-organo hori Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak eta mankomunitateko entitateen ordezkariak osatuko dute.

11. Plangintza orokorrerako mankomunitateen gobernu-organoek edukiko dituzte estatutuek ematen dizkieten eskudantziak. Nolanahi ere, Batzarrak edo entitatearen organo gorenak udaletan osoko bilkurari dagozkion eskudantziak edukiko dituzte.

12. Plangintza orokorrerako mankomunitateek, oro har, beren berariazko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak izanen dituzte, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza dutenak.

13. Beren eskumeneko zerbitzuak ematen ahalko dituzte, bai eta elkartutako entitateek esleitzen dizkietenak ere, toki araubideko legerian aurreikusitako edozein bide erabiliz.

14. Nafarroako Gobernuak sustatuko du plangintza orokorrerako mankomunitateak sor daitezela, foru lege honen 367. artikuluan eskualdeetarako aurreikusitakoaren arabera”.

Hogei. 234. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

Lehen. Lehen apartatuak testu hau izanen du:

“234. artikulua. Eginkizun publiko beharrezkoen azalpena eta horiek betetzea.

1. Hauek dira eginkizun publiko beharrezkoak Nafarroako toki entitate guztietan:

a) Idazkaritza lanak, barne harturik fede publikoa eta nahitaezko lege-aholkularitza.

b) Kontu-hartzailatza lanak, barne harturik barneko kontrol eta fiskalizazioa, ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa eta, azkenik, kontabilitatea.

c) Diruzaintza lanak, barne harturik funtsen erabilera eta gordetzea eta diru-bilketa.

Oro har, idazkaritza eta kontu-hartzailatzako eginkizun publikoen egikaritzea erreserbatzen da Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza duten funtzionarioentzat bakarrik.

Bai diruzaintzako eginkizunak bai aginte-erabilera barne hartzen dutenak foru lege honetan ezarritako zehaztapenen arabera betetzen ahalko dira.

Artikulu honen 3. apartatuan aurreikusitako kasuetan salbu, idazkaritza, kontu-hartzailatza eta diruzaintzako eginkizun publikoak ezin izanen dira aldi berean bete foru lege honen 243.2 eta 244.2 artikuluetan jasotako berriazko lanpostuak dituzten toki entitate desberdinetan”.

Bigarrena. 234. artikuluko 2. apartatuko a) letrak testu hau izanen du aurrerantzean:

“Foru lege honen 243.2 a) eta 244.2 a) artikuluetan aurreikusitako eskualdeetan, ohiturazko elkartean, plangintza orokorrerako mankomunitateetan, lanpostu espezifikoak duten mankomunitateetan eta udaletan, eginkizun horiek kasuko toki entitatearen langile propioek beteko dituzte.

Berriazko lanpostu propiorik ez duten udaletan, idazkaritza edo kontu-hartzailatzako eginkizun publikoak kasuko eskualdearen langile propioek beteko dituzte, foru lege honen 361.1 e) artikuluko 1. apartatuan ezarritakoarekin bat”.

Hirugarrena. 234. artikuluko 2. apartatuko b) letrak testu hau izanen du:

“Kontzejuetan eginkizun horiek arau hauei jarraikiz beteko dira:

– Eskumenen kudeaketa konpartituaren kasuan, foru lege honen 42.bis) artikuluan aurreikusitakoan, idazkaritza eta kontu-hartzailatzako zerbitzu administratiboak udaleko funtzionarioek ematen dituzte.

– Gainerako kasuetan, idazkaritza eta kontu-hartzailatzako zerbitzu administratiboak kasuko eskualdearen funtzionarioek ematen dituzte”.

Laugarrena. 234. artikuluko 3. apartatuak testu hau izanen du:

“3. Titularra kanpoan, gaixorik edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duen beste administrazio egoera batean badago, eta orobat, lanpostua behin betiko betetzeko arau-eragozpen bat badago, edo funtzionario batek betetzeko deitutako lanpostu hutsa aldi baterako bete behar bada, idazkaritza eta kontu-hartzailatzako eginkizun publiko beharrezkoak betetzen dituztenak honako hauek izaten ahalko dira:

a) Eskualdeetan:

– Eskualdeko funtzionario bat, nahikoa den foru gaikuntza duena, edo plantillako langile finko bat, nahikoa den titulazioa eta eginkizunak betetzeko behin-behineko gaikuntza duena, edo deialdi publikoaren bidez hautatutako langile bat, araubide administratiboan aldi baterako kontratatua.

– Nahikoa den foru gaikuntza duen funtzionario bat, zerbitzuak beste toki entitate batean ematen dituena, baldin eta behar den heinean frogatzen bada ezinezkoa izan dela lanpostu horiek aldi baterako betetzea aurreko apartatuan aurreikusitako aukeretakoren baten bidez, edo hura betetzeko tramitazioak iraun bitarte. Horretarako, lehenago, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari horren berri eman beharko dio, eta ukitutako toki entitateen baimena izan beharko du.

b) Berriazko lanpostu propioa duten gainerako toki entitateetan:

– Kasuko entitateko plantillako langile finko bat, lanpostu horretan aritzeko nahikoa den titulazioa eta entitateak horretarako emandako behin-behineko gaikuntza duena, edo deialdi publiko bidez hautatutako pertsona bat, administrazio araubidean aldi baterako kontratatua.

– Nahikoa den foru gaikuntza duen funtzionario bat, zerbitzuak beste toki entitate batean ematen

dituena, baldin eta behar den heinean frogatzen bada ezinezkoa izan dela lanpostu horiek aldi baterako betetzea aurreko apartatuan aurreikusitako aukeretakoren baten bidez, edo hura betetzeko tramitazioak iraun bitarte. Horretarako, lehenago, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari horren berri eman beharko dio, eta ukitutako toki entitateen baimena izan beharko du”.

Hogeita bat. 236. artikuluko 2. apartatuak testu hau izanen du:

“236. artikulua.

2. Nafarroako Gobernuan toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dago-kio hautatu eta izendatzea foru gaikuntza duten langileei erreserbatutako idazkaritza eta/edo kontu-hartzaitzako eginkizun publiko beharrezkoak bete behar dituzten langileak.

Langile horiek betetzen dituzten lanpostuak eskualdeko plantilla organikoko lanpostutzat hartuko dira foru lege honen 361.1 e) artikuluan aurreikusitako kasuetan, edo kasuan kasuko toki entitatekoak, 243.2 eta 244.2 artikuluetan araututako haien berariazko lanpostuak direnean.

Ondorio horietarako, eskualdeek beren plantilla organikoetan sartuko dituzte foru gaikuntza duten funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak, beren mugarteko toki entitateetan eginkizun publiko beharrezkoak betetzen direla bermatzeko behar direnak”.

Hogeita bi. 238. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Hona testu berria:

“238. artikulua.

2. Toki entitateek beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak (antolamendukoak, langileriakoak eta materialak) hartuko dituzte, bermatzekoak eginkizun publiko beharrezko eta osagarriak betetzen dituzten langileek beren betebeharrak independentzia, objektibotasun eta inpartzialtasun osoz betetzea”.

Hogeita hiru. 243. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“1. Idazkari-lanpostuak administrazio-erantzukizuna esleitura izanen du foru lege honetako 239. eta 239. bis artikuluetan adierazten diren fede publikoaren eta nahitaezko lege aholkularitzaren eginkizunen gainean.

Toki entitate horren bulego eta zerbitzuen antolaketaz eta zuzendaritzaz arduratzea ere izanen dira idazkari-lanpostuaren eginkizun, baldin

eta ez badaude gerentzia-lanak betetzen dituen A mailako beste langileren bati esleitura.

Idazkari-lanpostuaren berezko eginkizunak eskualdeetako funtzionarioek ere beteko dituzte kasuko lurralde esparruetan, Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza dutenean, 361.1.e) artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat.

2. Honakoetan egonen da idazkari-lanpostu propio espezifikoak:

a) 1.500 bizilagun edo gehiago dituzten udalerrietan, foru lege honetako 361.1.e) artikuluan xedatutakoa ukatu gabe bizilagun gutxiago izanik ere hala erabakitzen duten udalerrietarako, arau horretan ezarritakoarekin bat.

b) Eskualdeetan.

c) Lanpostu espezifikoak duten mankomunitateetan.

d) Tradiziozko batasunetan, baldin eta hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan.

e) Plangintza orokorrerako mankomunitateak”.

Hogeita lau. 244. eta 244. bis artikulua aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“244. artikulua. Kontu-hartzaile lanpostua.

1. Kontu-hartzaile lanpostuak foru lege honen 240., 240. bis eta 240. ter artikuluetan adierazitako eginkizunen administrazio-erantzukizuna izanen du esleitura.

Kontu-hartzaile lanpostuari berez dagozkion eginkizunnez gain, diruzaintza lanak ere egin beharko ditu, diruzain-lanposturik ez duten entitateetan.

Kontu-hartzaile lanpostu espezifikoak berez dagozkien eginkizunak eskualdeetako funtzionarioek ere beteko dituzte kasuko lurralde esparruetan, Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza dutenean, 361.1.e) artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat.

2. Kontu-hartzaile lanpostua nahitaez izan beharko dute honakoetan:

a) 3.000 bizilagun edo gehiago dituzten udalerrietan, foru lege honetako 361.1.e) artikuluan xedatutakoa ukatu gabe 2.000 bizilagun baino gehiago izanda plantilla organikoan lanpostu hori sortuta duten udalerrietarako, arau horretan ezarritakoarekin bat.

b) Ohiturazko elkartean, hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan, baldin eta azken bost

urteetan urteko izan duten gastu arrunta hiru milioi euro baino gehiagokoa izan bada.

c) Eskualdeetan.

d) Plangintza orokorrerako mankomunitateetan”.

“244. bis artikulua. Kontu-hartzaile lanpostuen sailkapena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren kontu-hartzaile lanpostu guztiak, bai eta 2.000 bizilagun baino gehiagoko udalerrietan Nafarroako Toki Araubidea eguneratzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen 1. artikulua xedatuaren arabera sortutakoak ere, A mailakoak izanen dira.

2. Biztanleria-bilakaeraren edo bestelako zirkunstantzien ondorioz toki entitate bati sailkapen-maila altuagoko kontu-hartzaile bat baldin badagokio, salbuetsita egonen da lanpostu hori bete beharraz gerora agertutako sailkapen-betebeharraren arabera gaikuntza duen langile batekin, ordura arte lan horiek egiten aritu den sailkapen baxuagoko funtzionarioaren egoera pertsonal amaiera-bidekoak iraun bitartean. Funtzionario horrek eginkizun horietan segitzen ahalko du, baina daukan mailatik goragoko gaikuntzarik eskuratu gabe”.

Hogeita bost. 245. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“245. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateetan idazkari eta/edo kontu-hartzaile eginkizun publiko beharrezkoak betetzeko, beharrezkoa da Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzea.

Aurrekotik salbuetsirik dago foru lege honetan Iruñeko Udalerako ezarritakoa.

2. Gaikuntza hori lortzeko aurretiazko betebeharra izanen da oposizio-lehiaketa bidez eginen den deialdia gainditzea, txanda irekian.

Izangai asko izateagatik edo administrazio-eraginkortasuneko beste arrazoi batzuegatik komendean, kasuko deialdian ezartzen ahalko da lehiaketaldiko balorazioa oposizioaldia amaitu ondoren egitea.

Kasu horietan, izangaiek deialdia argitaratzen den egunean edukitakotzat alegatzen dituzten merezimenduak oposizioaldia egin ondoren frogatuko dira, baina hura gainditu duten izangaiek bakarrik, eta epaimahaiak hala egiteko eskatzen dietetik hamabost eguneko epean”.

Hogeita sei. 246. ter artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“246. ter artikulua.

1. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, merezimendu lehiaketan deialdietan sartuak baina deialdi horietan betetzen ez direnak, esleituko zaizkie, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak izendapena egin ondoren, 245. artikuluan aipatzen den gaikuntza lortuta dutenei, aldez aurretik izangaiek beren puntuazioaren arabera aukera eginda, eta aintzat harturik bai lanpostu hutsen hizkuntza-eskakizuna bai foru lege honen 250. artikulua 2. apartatua ezarritako irizpideak. Lanpostu esleituen jabetza-hartzea egiten da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari eta hori garatzeko araudiari jarraikiz”.

Hogeita zazpi. 247. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Hona testu berria:

“247. artikulua.

2. Lehiaketa horien xedea izanen da betetzea foru lege honetako 243.2, 244.2 eta 361.1 e) artikuluetan jasotzen diren lanpostuak, horiek hutsik daudenean. Lehiaketa horietarako deialdia hiru urtean behin egiten da gutxienez, foru lege honetako 245. artikulua aipatzen duen gaikuntza lortzeko deialdia onetsi aurretik”.

Hogeita zortzi. 248. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“248. artikulua. Lanpostuak betetzeko deialdiak egin aurreko prozedura.

1. Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketan deialdia egin baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago, jarduketa hauek egiten ditu:

a) Toki entitateei jakinaraziko die zeintzuk diren, foru lege honen 243.2, 244.2 eta 361.1 e) artikuluetan sartuta egonik, lanpostu huts gisa edo huts egoteko moduko gisa jotzen diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak.

b) Ohiturazko elkarteei eta Iruñeko Udalari erabakia eskatuko die beren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak lanpostu-betetze sistema arruntan sartzeari buruz.

c) Informazioa bilduko du a) letran aipatzen diren toki entitate guztiengandik, desgaitasuna

duten pertsonentzako txandari araudi aplikagarriaren arabera erreserbatu zaizkion lanpostuei buruz.

d) Toki entitateei informazioa eskatuko die funtzionario-araubidean bete daitezkeen lanpostuen hizkuntza-eskakizunari buruz.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako jarduketak bukatu eta bi hilabeteko epean, toki entitateek departamentu horretara joko dute, helburu hauetarako:

a) Konfirmatzea ea betetzeko moduan dauden lanpostuak erreserbatuta ote dauden desgaitasunak dituzten pertsonen txandarako.

b) Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen hizkuntza eskakizuna zehaztea. Ulertuko da ezen, ezarritako epean jakinarazten ez badute, euskaraz jakitea ez dela nahitaezkoa, eta Foru Komunitateko Administrazioarako araudi espezifikokoak ezartzen duenarekin bat baloratuko da.

Udalez gaindiko entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu propioen hizkuntz eskakizuna, foru lege honen 243.2 eta 244.2 artikuluetan jasota daudenena, ulertuko da izanen dela egoitza zer toki entitateetan dagoen, toki entitate horretarako.

Eskualdeak bere mugartean dituen Foru Komunitatearen gaikuntzadun lanpostuen hizkuntz eskakizuna definitu aurretik, kontsulta eginen zaie kasuko eginkizun publiko beharrezkoen hartzaile diren toki entitateei, indarreko araudia betiere beterik.

3. Aurreko puntuan ezarritako epea bukatuta eta toki entitateek eginiko komunikazioak aztertuta, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, aipatu lanpostu-betetze lehiaketen deialdia egin baino lehen, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du 247. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoari jarraikiz funtzionario araubidean bete beharreko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen zerrenda eta, behar denean, zehaztuko ditu desgaitasuna duten pertsonentzako txandarako erreserbak eta kasuko hizkuntza-eskakizunaren nondik norakoak”.

Hogeita bederatzia. 250. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“250. artikulua. Merezimenduak.

2. Euskara maila frogatzeko eta kasu bakoitzean balorazioa egiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileentzat hizkuntza horren ezagutzaren tratamenduaren gainean ezarritako araudiari segituko zaio”.

Hogeita hamar. 252. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“252. artikulua. Esleipenak eta jabetza-hartzeak.

1. Merezimenduen lehiaketen ondorioz lanposturen bat esleitzen zaien hilabeteko epean hartu beharko dute beren izendapenaren xede den lanpostuaren jabetza, izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita. Horrekin batera, aurreko lanpostua utzi beharko dute, kasua bada.

Dena dela, administrazio eraginkortasuna helburu, deialdia egin duen organoak lanpostuaren jabetza hartzeko egun jakin bat finkatzen ahalko du. Horrelakoetan, aurreko paragrafoan ezarritako epea gainditzen ahalko da.

2. Aurreko apartatuan aurreikusi gabekoetan azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuan merezimendu lehiaketei dagokienez aurreikusitakoak aginduko du. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onetsi zen”.

Hogeita hamaika. 254. artikulua aldatzen da eta hauxe da testu berria:

Lehen. 1. apartatuaren a) letraren testua hauxe izanen da:

“Arau-hauste arinen kasuan, diziplina-espedienteak irekitzea toki entitateko alkateari edo udalburuari dagokio”.

Bigarrena. 2. apartatuko a) letrak testu hau izanen du:

“Arau-hauste arinen ondoriozko zehapenak ezartzea toki entitateko alkateari edo udalburuari dagokio”.

Hogeita hamabi. 255. artikulua 1. apartatua aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten funtzionarioen administrazio egoeren deklarazioa egitea toki entitateko buruari dagokio”.

Hogeita hamahiru. 257. artikulua 2. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“257. artikulua.

2. Diruzain lanpostua beharrezkoa izanen da 25.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako udaletan.

4. Plantilla organikoan kontu-hartzaile lanpostua duten edo ezartzea erabaki duten udaletan eta gainerako udalez gaindiko toki entitateetan, kontu-

hartzaileari dagokio entitatearen diruzaintzako eginkizunak betetzea”.

Hogeita hamalau. 333. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“333. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateen jarduera administratiboa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolaren menpe dagoena, bide hauetakoaren batetik aurkaratzen ahalko da:

a) Legeria orokorrean ezarritako errekurtsu jurisdikzionalak edo administratiboak aurkeztuz organo eskudunetan.

b) Kapitulu honen bigarren atalean ezarritako gora jotzeko errekurtsua aurkeztuz Nafarroako Administrazio Auzitegian. Auzitegi horren ebazpenek, espresuek edo presuntziozkoek, amaiera emanen diote foru administrazio bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunetan aurkaratzen ahalko dira”.

Hogeita hamabost. 337. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“337. artikulua.

1. 333. artikulua 1. zenbakiaren b) paragrafoan aipatzen den gora jotzeko errekurtsua aukurakoa eta doakoa izanen da eta, jartzekotan, Nafarroako Administrazio Auzitegian jarriko da.

Gora jotzeko errekurtsua jartzeko epea hilabeteak izanen da, egintza espresua bada. Espresua ez bada, errekurtsua edozein unetan jartzen ahalko da, araudi espezifikokoaren arabera administrazio-isiltasunaren eraginak gertatu diren egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legeriaren arabera jarduera administratiboa aurkara daitekeen gainerako kasuetan, jurisdikzio horri zein egunetan aurkeztu ahal zaion errekurtsua, egun horretatik aurrera edozein momentutan aurkeztu ahalko da errekurtsua”.

Hogeita hamasei. 338. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“338. artikulua.

2. Gora jotzeko errekurtsuak sei hilabeteak epean ebatzi beharko dira. Epe hori ebazpen espresik eman gabe igarota, errekurtsuak ezetsitatzat jotzen ahalko dira”.

Hogeita hamazazpi. 340. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“340. artikulua.

1. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak betearaztea dagokio errekurtsuaren xede den jarduketa egin duen toki entitateko organoari.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Administrazio Auzitegiak eskatuta, egokia dena xedatzen ahalko du aipatu ebazpenak subsidiarioki betearazteko, baita betearazpena ahalbidetzeko eskumenetan automatikoki subrogatzea eta beharrezkoak diren funts ekonomikoak eskura jartzea ere”.

Hogeita hemezortzi. Titulu berria gehitzen da, X.a, eta testu hau izanen du:

“X. TITULUA
Eskualdeak

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak.

352. artikulua. Eskualdeen definizioa, izaera eta helburuak.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua 1. apartatuko a) letran eta 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduaren 13. oinarrian aitortzen den eskumen historikoaz baliatuz, ezaugarri eta interes komunak dituzten udalerrri mugakideek eskualdeak osatuko dituzte, eta eskualde horiek toki entitate izaera izanen dute.

2. Eskualdeak lurraldeko toki entitateak dira, udalez gaindiko izaera, nortasun juridiko propioa eta beren helburuak betetzeko gaitasuna eta autonomia dutenak.

3. Eskualde bakoitzak bere ardurapean izanen du udalez gaindiko jardueren kudeaketa eta zerbitzuen ematea, eta eskualdeko populazioaren eta lurraldearen interesak ordezkatzeko ditu, Nafarroan elkartasun eta lurralde-oreka handiagoak lortzearen alde.

4. Era berean, eskualdeak bera osatzen duten udalekin batera lan egingen du bere helburu propioak betetzeko.

353. artikulua. Eskualdeen ahalmenak.

Eskualdeari honakoak dagozkio bere eskumenak betetzean:

a) Erregelamendu- eta autoantolaketa-ahalmenak.

b) Finantza- eta tributu-ahalmenak.

c) Programazio- eta plangintza-ahalmena.

d) Bere egintzak zuzenbidearen arabekoak eta bete beharrekoak izatearen presuntzioa.

e) Nahitaezko betearazpenerako eta zehape-nerako ahalmenak.

f) Bere egintzak eta erabakiak ofizioz berrikus- teko ahalmena.

g) Bere ondasun eta eskubideen enbargaezint- asuna, legeetan aurreikusitako moduan; Ogasun Publikoari bere kredituei dagokienez aitortzen zaizkion hurrenkera, lehentasuna eta gainerako prerrogatibak, ezertan ukatu gabe Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko ogasunei dagoz- kienak.

h) Desjabetze-ahalmena eta bere ondasunak ikertu, mugatu eta ofizioz berreskuratzeko ahal- menak.

354. artikulua. Eskualde-mugartea.

1. Eskualde-mugartea eskualdea sortu duen foru legean mugatzen den lurralde osoa izanen da.

2. Udalerrri bakoitza eskualde bakar batekoa izaten ahalko da.

3. Udal-mugarteen aldaketak eskualde-muge- tan eragina baldin badu, aldi berean ebatzi beha- rrekoa izanen da aldaketa horri loturik doan eskualde-mugaketaren aldaketa ere.

4. Eskualdeek lurralde-jarraitutasuna izan beharko dute, Petilla Aragoiko udalerrria hartzen duena salbu, haren kokapen geografikoaren ezau- garri bereziak direla eta.

5. Eskualdeak sortzeko prozesua amaituta, Nafarroako udal guztiek horietako batean sarturik egon beharko dute.

355. artikulua. Zerbitzuen izena eta egoitzak.

1. Eskualdeak identifikatuko dituen izena haie- tako bakoitza sortzeko foru legean ezartzen dena izanen da.

2. Eskualde bakoitza sortzen duen foru legeak zehaztuko du zein izanen den edo diren eskualde- ko organoek beren egoitza izanen duten udalerrria edo udalerrriak.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, eskualdeak sortzen dituzten foru legeek beste udalerrri batzuei esleitzen ahalko diete zerbitzu ba- tzuen egoitza.

4. Eskualdeen izena eta egoitza aldatzeko, foru lege honen 21. artikulutik 26. artikulura bitar- tekoetan udalerrietarako ezarritakoaren antzeko prozedura bete beharko da.

II. KAPITULUA

Eskualdeak sortzea

356. artikulua.

Foru lege baten bidez sortuko da eskualde bakoitza, bai eta ezarri ere haren izena, lurralde esparrua, egoitza, baliabide ekonomikoak eta eskumenak, zeinak, gutxienez ere, foru lege honen 361. artikuluko 1. apartatuan aurreikusita- koak izanen baitira. Foru lege hartan ezarriko dira, halaber, gobernu organoen osaera eta fun- tzionamendua.

Era berean, foru lege hark arautuko du nola egingen den ordura arte udalez gaindiko beste enti- tate batzuen esku zeuden eginkizunak, ondasu- nak eta langileak eskualdera eskualdatzeko pro- zesua, beste entitate horiek azkendu egingen baitira eskualdea sortzean, foru lege honen 370. eta 371. artikuluetan ezarritakoarekin bat, salbu eta Ohiturazko Elkarteak, mugarte bakoitzean egon litezkeenak, kasua bada.

Udalez gaindiko entitate horien gobernu orga- noek jardunean jarraituko dute harik eta eskualde- ko batzarra eratu eta haren lehendakaria hautatu arte.

357. artikulua.

Eskualdea sortzeko prozesua hasten ahalko da:

1. Kasuko udalek proposatuta, honakoek eki- menez:

a) Eskualdea osatu behar duten udalen here- narena, gutxienez.

b) Udal horietako baten edo batzuen, baldin eta kasuko lurraldeko hautets-erroldaren erdia ordezkatzeko badute gutxienez.

Bi kasuetan, ekimenak erreferentzia gisa hartu- ko du Nafarroako Toki Administrazioaren Errefor- marako Foru Legearen lehen xedapen iraganko- rrean zehazten den eskualde-mugaketa, eta osoko bilkura bakoitzaren erabakia beharko da, onetsia udalbatza osatzen duten kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoaren aldeko boto- ekin.

2. Nafarroako Gobernuaren ekimenez, zeinak hasiera emanen baitio eskualde bat sortzeko pro- zesuari Nafarroako Toki Administrazioaren Erre- formarako Foru Legearen lehen xedapen iragan- korrean zehazten den eskualde-mugaketaren arabera, baldin eta indarra hartzen duenetik hemezortzi hilabeteko epean ekimen hori ez badu- te gauzatu zerikusia duten udalek.

358. artikulua.

1. Eskualdea sortzeko ekimena udalerriena denean, Nafarroako Gobernuan toki administrazioaren eskumena duen departamentuak, behin udalen erabakiei buruzko ziurtagiriak jaso ondoren, eta horiek jaso eta hilabeteko epean gehienez ere, erabaki horiek igorriko dizkie proposatutako eskualde-mugaketan sartuta dauden gainerako udalei.

Udal horiek modu espresuan adierazi beharko dute proposamena onartzen duten edo ez, osoko bilkura bakoitzak erabakia hartuta, udalbatza osatzen duten kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoaren aldeko botoekin onetsia, erabaki horiek jakinarazi eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

Udalak epe horretan ez badu erabakirik hartzen edo erabakirik jakinarazten, ulertuko da ez duela eragozpenik proposatutako eskualdean sartzeko.

2. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean zehazten den eskualde-mugaketaren arabera zein eskualdetan dauden kokatuta, horrekin ados ez dauden udalerriek, zilegi izanen dute, mugaketa horretan beste eskualde batekin mugakide agertzen badira, beste eskualde horretan sartzeari eskatzea, egoki baderitzote.

Eskaera horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Udalbatza osatzen duten kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoaren botoekin hartutako erabakiaren bidez onetsia izatea.

b) Zer eskualdetan sartzeari eskatzen den, eskualde horretan sarturik dauden edo sartzera doazen udalen bi herenek gutxienez eragozpenik ez izatea.

3. Ekimena Nafarroako Gobernuarena denean, toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak dagokion erabakia igorriko die eskualdean sartu beharko liratekeen udalerriz guztiei, berariaz adieraz dezaten hura onartzen duten edo errefusatzeko dute, ekimena udalena izatearen kasurako aurreko apartatuetan ezarritako dagokienarekin bat.

4. Bi kasuetan, entzunaldia emanen zaie proposatutako eskualde-mugaketaren barruan dauden kontzejuei.

359. artikulua.

1. Ukitutako udalerriz eta kontzeju guztien iriztiaren berri izan ondoren, Nafarroako Gobernuak

erabakia hartuko du eskualde-entitatearen bidez-kotasunaz eta behin betiko osaz, toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak txostena eman eta gero.

Udalerriren batek ezezkia ematen badiu proposatutako eskualdean sartzeari, txosten hori berariaz mintzatu beharko da udalerriz eskualde horretan edo haren mugakidean sartzeari buruz, aurreko artikulua bigarren apartatuan ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroako Gobernuak ezin izanen du jarrekarik adierazi eskualdearen eraketaz, eta prozedura artxibatuko da, baldin eta eskualdearen parte izateko proposatutako udalerriz bi bostenek sartzeari kontra daudela berariaz adierazten badute, betiere udalerriz horiek gutxienez ere kasuko lurraldeko hautesle eroldaren erdia ordezkatzeko gero.

Eskualdearen eraketa errefusatzeko ekarriko du foru lege honetako 357. artikuluan aipaturiko eskualde-eraketako prozesu berri bati ezin ekitea harik eta hurrengo udal hauteskundeetatik ateratako udalbatzak sortu arte.

360. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuaren erabakia eskualdea sortzearen aldekoa bada, Eskualdeko Batzorde Teknikoa sortuko da, kide hauekin osatuta: Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak, eskualderako proposatutako esparruan sartutako udalen eta udalez gairik entitateenak eta ukitutako langileenak.

Langileen ordezkariak Nafarroako Administrazio Publikoaren Mahai Orokorrak proposatuta hautatuko dira.

2. Eskualdeko batzorde teknikoaren xedea honako gai hauei buruzko txosten zehatz bat egitea izanen da:

a. Eskualdean sartu behar diren udalez gairik entitateen langile, eginkizun, ondasun eta zerbitzuen eskualdaketak, foru lege honen 370. eta 371. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

b) Azpieskualdeen eraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako eskualde-mugaketan ezartzen diren kasuetan, eta foru lege honen 369. artikuluan adierazitakoarekin bat.

c. Eskualdeko batzarraren kide kopuruari buruzko proposamena.

3. Txosten hori, aurreko paragrafoan ezarritako zehaztapenekin, nahitaezkoa izanen da eta

eskualdea sortzeko foru legearen aurreproiektua onesteko prozeduran egin beharrekoak direnei erantsiko zaie.

4. Eskualdeko batzorde teknikoa aldi baterakoa izanen da, eta eskualdea sortzeko foru legeak indarra hartzearekin batera automatikoki azkendu-ko da.

III. KAPITULUA

Eskumenak eta zerbitzuak

361. artikulua.

1. Eskualdeek arlo hauetan izanen dituzte eskumenak:

a) Oinarrizko gizarte zerbitzuak, udalez gaindikoak, aplikatzekoa den foru araudi sektorialarekin bat, eta oinarrizko legeriak udalerrietarako gordezten dituen eskumenak ezertan kaltetu gabe.

Gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuak indibidualki kudeatzen ari diren udalerriek horretan segitzen ahalko dute, hala eskatzen badute, 10.000 bizilagun baino gehiago izanez gero.

b) Uraren goi hornidurako sareak, udalez gaindikoak, eta ziklo hidraulikoaren obrak egiteko udal eta kontzejuei ematen zaizkien laguntzen kudeaketa, arlo horretako foru legeria eta planeamendu sektorial indardunetan xedatutakoarekin bat, eta ezertan kaltetu gabe edateko uraren etxebizitza-hornidurari dagokion udal eskumena.

Ur horniduraren prozesu osoa, goikoa nahiz behekoa, indibidualki kudeatzen duten udalerririk salbuetsirik egoten ahalko dira, hala eskatzen badute eta, betiere, ez badute beste udalerririk akuiferorik, ura edangarri egiteko azpiegitaririk edo hodi sarearik konpartitzen.

c) Udalez gaindiko hondakin-tratamendua, Nafarroako Gobernuaren planeamendu gidariaren esparruan.

Bereziki, eta ezertan kaltetu gabe hiri hondakin solidoen kudeaketaren arloan udalek dituzten eskumenak, besteak beste jarduera hauek egiten ahalko dituzte:

1. Hondakinen balorizazioa.

2. Prebentzio, garraio, errefusen erabilera, zabortegi kontrolgabeen itxiera eta hiri hondakinen birziklatzea helburu harturik Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen plan eta programak gauzatzeko laguntzea.

3. Eraikuntza eta eraipen jardueretatik datozen hondakin inerteen, pneumatikoen, bolumen handiko hondakinen eta animaliengandiko honda-

kinen arloetan Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen plan eta programak gauzatzeko laguntzea.

4. Hiri hondakinak deuseztatzeko azpiegituren eta ekipoen erabilera kudeatu eta koordinatzea.

5. Hiri hondakinen gaikako bilketa, berrerabil- tzea eta birziklatzea bultzatu eta laguntzeko susta- pen neurriak.

6. Hiri hondakinen arloan herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko kanpainak sustatu eta planifikatzea.

7. Hiri hondakinen arloko indarreko araudia aplikatzen ote den zaindu eta kontrolatzea.

d) Lurraldearen antolamendua eta hirigintza. Aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, eta ezertan galarazi gabe oinarrizko legeriak udalei eta Foru Komunitateko Administrazioari erreserbatutako eskumen eskusiboak.

e) Idazkaritza eta kontu-hartzaitzako zerbitzu administratiboak.

Lehena. Idazkaritza eta kontu-hartzaitzako zerbitzu administratiboak 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hurrenez hurren.

Horretarako, eskualdeak bermatuko du toki entitate horietan funtzionario propioen bitartez betetzen direla foru lege honen 234. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako eginkizun publiko beharrezkoak. Funtzionario horiek eskualdeko udal eta kontzejuei laguntzeko dena delako zerbitzuari atxikita egonen dira eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza izanen dute.

Eskualdeko toki entitateetan eginkizun publiko beharrezkoak betetzeari buruz aurreko apartatuan aurreikusitakoak ez du galaraziko lanpostu horiei beste eginkizun batzuk esleitzea, eginkizun haie- taz bestelakoak edo haien osagarriak.

Zerbitzu horiek emateko lurralde esparruak zehazteko, erreferentzia gisa hartzen ahalko da, salbu eta beharizan edo komenigarritasun ekono- miko nahiz administratiboek eragindako arrazoi agerikoak badaude, administrazio zerbitzuen bata- sunak, eratuta daudenak Nafarroako Toki Admi- nistrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duen egunean, betiere bi baldintza hauek betetzen badira:

a) Eskualde berean sartuta dauden udalerririk mugakideak izatea.

b) Zerikusia duten toki entitate guztiek hala adieraztea, osoko bilkurak bere kideen legeko kopuruaren erabateko gehiengoaz hartutako era- bakiaren bidez.

Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, bizilagun gutxiago dituzten udalerrietan ere berriazko idazkari lanpostu propioa izaten ahalko dute, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duena, hala erabakitzen badu osoko bilkurak bere kideen legezko kopuruaren erabateko gehiengoaz, eta betiere inguruabar hauetakoren bat tartean dela:

– Udallerri konposatuak izatea, idazkari lanpostu propioa dutenak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duen egunean, haien populazio-guneen sakabanaketa geografikoa dela-eta komeni denean idazkari lanpostu propioa izatea.

– Haien urteko gastu arrunta, azken bost urteetan, 500.000 euro baino gehiagokoa izatea.

Aipatutako erabakia toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari igorri beharko zaio bi hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duenetik.

Berriazko kontu-hartzaille lanpostu propioa izanen dute, halaber, 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek, baldin eta, Nafarroako Toki Araubidea eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen 1. artikuluan xedatutakoa dela medio, lanpostu hori sortuta eta plantilla organikoan badute Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duen egunean.

Bigarrena. Bere mugarteko kontzejuei idazkari-tza eta kontu-hartzailtzako administrazio zerbitzuak ematea, foru lege honen 234.2 b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

2. Horrez gain, eskualdeak ur edangarriaren behe hornidurako zerbitzuak emanen ditu, bai eta hondakin uren ebakuazio eta tratamendukoak eta hiri hondakin solidoen bilketa eta kudeaketakoak ere, orokortasunez mankomunaturik dauden zerbitzuak direlako, baldin eta eskumenaren titular diren udalerriek bertan behera uzten ez badute kasuan kasuko mankomunitateari eginiko eskuordetzea.

3. Eskualdeek zilegi izanen dute baliatzea Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenen esparruan legeria sektorialak propio gisa esleitzen dizkien eskumenak, betiere Toki Araubideko Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluko 3., 4., eta 5. apartatuetan ezarritakoari lotuz, gai hauetan:

- a) Kultur ondarearen babesia.
- b) Ingurumenaren babeserako esku-hartzea.

c) Hiriarteko garraioa eskualdearen esparruan.

d) Osasuna eta osasungarritasun publikoa

e) Landa ingurunearen garapena, nekazaritza, abeltzaintza eta onura publikoaren deklarazioa duten mendiak.

f) Gazteria.

g) Turismoa.

h) Kirola.

i) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesia.

j) Haur Hezkuntzako lehen zikloa.

k) Musika eskolak.

l) Liburutegiak.

m) Legeria sektorialaren bidez ezartzen diren beste gai batzuk.

362. artikulua. Sostengu eta laguntza eginkizunak eta zerbitzuen zorroa.

1. Eskualdeek sostengua eta laguntza emanen dizkiete beren lurralde esparruko udal eta kontzejuei; batez ere, diru- eta kudeatze-ahalmen txikienak dituztenei. Besteak beste, zerbitzu hauek ematen ahalko dizkiete:

– Administrazio elektronikoaren ezarpen eta mantentze-lanetan laguntzea. Bereziki, gardentasun-atariak sortu eta kudeatzea.

– Hirigintza- eta ingurumen-gaietako aholkularitza, txosten-egitea eta laguntza teknikoak.

– Laneko arriskuen prebentzioa.

– Euskarara itzultzeko zerbitzu teknikoak.

– Udalek eta kontzejuek zeinek bere eskualdearen esparruan eskatzen dituzten beste zerbitzu espezifiko batzuk.

Nafarroako Gobernuak sustatuko du sostengu eta laguntza teknikoak emateko eginkizun horien abiarazpena, foru lege honen 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Eskualdeak laguntza berezia emanen die udal konposatuei, beren mugarteko kontzeju guztiekin eskumenen kudeaketa konpartiturako hitzarmenak izenpetu dituztenei, hala eskatzen badute.

2. Beren eskumen propioei dagozkien zerbitzuez gain, eskualdeek beste zerbitzu batzuk ematen ahalko dizkiete hala eskatzen duten beren esparruko toki entitateei, jarduera material, tekniko edo zerbitzuetakoak egiteko eskuordetze edo gomendio bidez, besteak beste arlo hauetan:

- Beste zerbitzu administratibo batzuk.
- Polizia eta babes zibila.
- Hirigintza, etxebizitza eta ingurumen arloa.
- Garapen ekonomikoa.
- Hezkuntza zerbitzuak.
- Kirolaren sustapena, kirol instalazioak eta aisialdiaren erabilera.
- Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak.
- Gazteria.
- Berdintasun politikak.
- Euskara.

363. artikulua. Eskuordetzeak eta kudeaketa-gomendioak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak eskumenen erabilera eskuordetzen ahalko die eskualdeei, edo gomendioa egin, jarduera material, tekniko edo zerbitzuetakoak egitekoa.

2. Udalek eta kontzejuek eskumenak eskuordetzen ahalko dizkiete eskualdeei.

364. artikulua. Hitzarmenak

Eskualdeek hitzarmenak izenpetzen ahalko dituzte beren esparruko udalerrri eta kontzejuekin, bi aldeen interesekoa den edozein gaitan elkarlanean aritzeko.

Hitzarmen horiek izenpetzen dituzten udalerririk eta kontzejuek eskualdearenak diren eskumenei dagozkien betearazpen eginkizunak betetzen ahalko dituzte.

365. artikulua.

Eskualdeak elkarlanean aritzen ahalko dira, honako xede hauetarako hitzarmen edo itunen bidez: ondasunak edo instalazioak elkarrekin erabiltzea, elkarren artean obrak egitea edo beren mugarte osoan eragina duten zerbitzu amankomunak ematea, hala nola toki garapeneko agentziak ezartzea, kudeaketa publikoa efizienteagoa izan dadin.

366. artikulua.

1. Zerbitzuak kalitatez eta efizientziaz, bikoizterik eta disfuntziorik gabe, ematen direla bermatzeko, eskualdeak zilegi izanen du bere esparruan honako zerbitzu hauen ematea koordinatzea, horren justifikazio tekniko eta ekonomikoa egin ondoren:

a) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.2 artikuluan

aurreikusitako zerbitzuak, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.

b) Eskumen berekiez eta eskuordetutakoez bestelako eskumenetan jardutean emandako zerbitzuak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren zerbitzuei dagokienez, bai Eskualdeko Batzarrak bai azpieskualdeko Kontseiluak proposatzen ahalko dute zuzeneko zerbitzu-ematea eskualdearen eskutik, edo kudeaketa konpartiturako formulak ezartzea, ukitutako udalerririk ados badaude eta aplikatzekoa den oinarritzko araudian ezarritakoarekin bat.

367. artikulua. Sustapen jarduerak.

1. Eskualdeek lehentasuna izanen dute udalez gaindiko intereseko obra eta zerbitzuetarako Foru Komunitatearen planetan sartzeko, orokortasunez ezartzen diren baremoekin bat.

2. Nafarroako Gobernuak aholkularitza eta laguntza berezia emanen du eskualde berriak eratzeke eta daudenen funtzionamendurako.

3. Nafarroako Gobernuak bereziki aldeztuko du eskualde bakoitza antolatu eta abian jartzeko prozesua, beharrezkoak diren inbertsioetarako eta funtzionamendu gastuetarako laguntzak emanez.

368. artikulua. Eskumenen esleipen eta baliatzeari buruzko erregela orokorra.

Ulertzen da lege honetan arautzen diren eskumenen esleipena eta baliatzea eskualdearen mugarteari eta haren interes berekiei dagozkiela; betiere, ukatu gabe udalerririk beren udal autonomiaren poderioz dituzten eskumenak.

IV. KAPITULUA Azpieskualdeak

369. artikulua. Azpieskualdeak.

1. Eskualde bakoitza sortzeko foru legeak aurreikusten ahalko du, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean jasotzen den eskualde-mugaketan aurreikusitako kasuetan, eskualdean azpieskualde bat edo bi egoteko aukera, ezaugarri sozial, geografiko edo administratibo batzuk badaudenean, eskualdeko udalerrietako batzuek baino ez dituztenak, eta horien ondorioz gainerako udalerrietatik argi bereziak gertatzen direnean udalerririk horiek, nahiz eta eskualde bereki bat osatzerainoko nolakotasunik lortu gabe. Udalerririk horiek lurralde-jarraitutasuna izan beharko dute.

2. Kasu horretan, eskualdeek azpieskualdeen kontseilu bat edo bi izanen dituzte, beren esparruko toki entitateen ordezkariak osatuak.

Eratu ondoren, eskualdeko batzarrak ezarriko du azpieskualdeko kontseiluko kideen kopurua eta hautatzeko modua.

Kontseilu horrek lehendakaritza bat izan behar du, eta gutxienez ere hiru hilean behin egin behar du bilkura arrunta.

3. Azpieskualdeko kontseiluak proposamenak eta ekimenak egiten ahalko dizkio eskualdeko batzarrari, eta aginduzko kontsulta loteslea eskatu behar du zaio azpieskualdearen interesen esparruari nabarmen eragiten dioten gaietan, eskualdea sortzeko foru legean horretarako ezarritakoarekin bat.

Gai horiek ez dira izanen, inolaz ere, udalez gaindiko ur hornidurako edo goi hornidurako eskualde-eskumenei dagozkienak, ez eta udalez gaindiko hondakin-tratamenduari dagozkionak ere.

Bereziki, azpieskualdeko kontseiluak proposamenak egiten ahalko ditu, eta nahitaezko txosten loteslea eman behar du, eskualdeak foru lege honen 366. artikuluan aurreikusten diren zerbitzuak zuzenean emateari buruzkoa, salbu eta eskualdearen esparru osoari eragiten dioten zerbitzuen kasuan.

V. KAPITULUA

Eskualdean dauden udalez gaindiko entitateak

370. artikulua.

1. Eskualdeek hartuko dute eskualde bakoitza sortzeari buruzko foru legeak indarra hartzean dauden udalez gaindiko entitateen ondorengotza, eginkizun mankomunatuaren titular diren subjektu publiko gisa, hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat, ohiturazko elkarteei dagokiena salbu.

2. Eskualde-sorkuntzako foru lege bakoitzean arautuko dira udalez gaindiko entitateetako langile, eginkizun, ondasun eta zerbitzuak direla-eta egin beharrekoak diren eskualdaketak, entitate haien lurralde esparrua eskualdearena denean, osorik edo zati batean.

3. Eskualdeak udalez gaindiko entitatearen ondorengotza hartuko du azken horri gastu arruntetarako esleitzen zaizkion transferentzien eta inbertsioen jasotzeari dagokionez.

4. Udalez gaindiko entitate desagertuen funtsak udalez gaindiko inbertsioak finantzatzeko erabiltzen ahalko dituzte eskualdeek, edo udalez gaindiko entitateetako langileak, eginkizunak, ondasunak eta zerbitzuak eskualdeari eskualdazteak ekartzen dituen gastuak ordaintzeko.

Bereziki, funts horiek erabiltzen ahalko dira kasuan kasuko eskualdeak bere gain hartutako eginkizunak ezartzeko beharrezkoak diren azpiegiturak egokitu, hobetu edo osatzeko. Era berean, bere gain eskualdeak ere hartuko ditu zorrak eta gerakin negatiboak.

5. Ordura arte udalez gaindiko entitateek emandako zerbitzuen kudeaketan eskualdeak subrogatzeak ez du berez ekarriko zerbitzuaren estatutu-araubidea aldatzea erabiltzaileei dagokionez, ez eta, kasua bada, kontzesio-hartzaileari dagokionez ere.

6. Mankomunitate batean sartuta dauden udalerrietako batzuk mankomunitate horren ondorengo den eskualdekoak ez direnean, eskualde horrek bere lurralde esparruko udalerriei dagokionez bere gain hartu behar dituen helburuak zehaztuko dira.

Horrek dakartzan ondorioak ikusita, mankomunitatearen estatutuak aldatzea planteatuko da, haren osaketa eta helburuak egoera berrira egokitzeko. Hori dela-eta ezinezkoa baldin bada mankomunitateak irautea, edo ziurtatzerik ez badago mankomunitateak berari dagozkion zerbitzuak ematea, mankomunitatearen ondorengo den eskualdeak haien mantentzea bermatu behar du, eta, horretarako, hitzarmenak egiten dira eskualde mugakideko udalerriri interesdunekin, kasuko eskualdea eratu arte.

Kasu horretan, eskualde bakoitza sortzen duen foru legeak ezarriko du langileak zein toki entitateari atxiki, zenbait irizpide kontuan harturik, hala nola lanpostuak betetzen dituzten langileak funtzionarioak ala lan-kontratadun finkoak diren eta, halaber, haien antzinasuna lanpostu horietan.

7. Eskualde baten lurralde esparruan dauden udalez gaindiko entitate batzuen helburuak guztiz bat ez badatoz eskualde horren eskumenekin, entitate horiek helburu horiei dagokionez baizik ez dute iraunen, eta beren estatutuak egoera berrira moldatu behar dituzte.

Hori dela-eta ezinezkoa baldin bada udalez gaindiko entitateak irautea, edo kasuko zerbitzuen ematea ziurtatzerik ez badago, eskualdeak bermatu behar du zerbitzuak ematen direla, eta, horretarako, hitzarmenak egin entitate horrekin, kasuko eskualdea eratu arte.

371. artikulua. Udalez gaindiko entitateak eskualdeetan sartzeko prozesurako legezko bermeak.

1. Udalez gaindiko entitateetako langile guztiak, aurreko artikuluan ohiturazko elkarteetarako aipatutakoen kasuan salbu, atxikiak diren espa-

rruari dagokion eskualdean sartuta geldituko dira, eskualde bakoitza sortzen duen foru legeak indarra hartzean indardun diren funtzionario- edo kontratu-araubideko baldintzekin, edozein dela ere kontratu mota.

2. Sozietate publikoak mantendu eginen dira, eta kasuan kasuko zerbitzua ematen duen eskualdearen menpe egotera pasako dira.

3. Udalez gaindiko entitateen azpiegitura- eta zerbitzu-sareen titulartasuna, berriz, entitate horiek zein eskualdetan sartzen diren, eskualde horrena izanen da. Eskualdean partzialki sartuz gero, entitatearen egoitza kokatuta dagoen herria zein eskualdetan dagoen edo egonen den, eskualde horrena izanen da titulartasun hura.

4. Azpiegitura-sarearen titularra den udalez gaindiko entitatearen ondorengotza hartzen duenaz beste eskualde batean sartzen diren udalez zerbitzua jasotzen jarraitzen ahalko dute, zerbitzua ematen dien eskualdean sartuta dauden udalei aplikatzen zaizkien baldintza beretan.

5. Eskualdeak behar diren neurriak hartuko ditu egiturak (antolaketa-koak, higiezinak, langileenak eta baliabideenak) bere beharretara egokitzeko, egiten dituen jardueren eta ematen dituen zerbitzuen arabera.

Horretarako, eskualdeek beren giza baliabideen antolaketarako planak onetsi beharko dituzte, eta plan horietan neurri hauetako batzuk jasoko dira:

a) Dauden langileak eta behar direnak aztertea, bai kopuruaren ikuspegitik bai haien ezaugarri profesionalak edo kualifikazio mailak aintzat hartuz.

b) Lana antolatzeko sistemei eta lanpostu-egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.

c) Mugikortasun-neurriak; horien artean jaso ahalko dira kanpoko langileen esparru zehatz baterako atxikipena etetea, edo lanpostuak betetzeko lehiaketak deitzea zehazten diren esparruetako langileentzat mugatuta.

d) Barne igoerarako neurriak, langileen prestakuntzakoak eta nahitaezko mugikortasunekoak, aplikatzeko den araudian xedatutakoarekin bat.

e) Giza baliabideak enplegu publikoaren eskaintzaren bidez atxikitzearen aurreikuspena.

6. Era berean, aplikatzeko den araudiarekin bat, eskualdeak neurriak hartuko ditu enplegu publikoan aldi baterako lanpostuen kopurua murrizteko eta plantillaren egonkortasuna sendo-

tzeko, eta sektore pribaturako joera honako kasu hauetara mugatuko du:

– Langileen beharizan ez-iraunkorretara.

– Ohikoak ez diren jarduerak egin behar diren kasuetara.

– Beren berezitasun teknikoagatik edo beste edozein arrazoiengatik langile propioekin egiterik ez dagoen jardueretara.

VI. KAPITULUA

Antolaketa eta funtzionamendua

372. artikulua. Eskualdearen organoak

1. Eskualde guztietan egonen dira lehendakari-tza, gobernu batzordea eta eskualdeko batzarra.

2. Kontuen batzorde berezi batek entitatearen urteko kontuei buruzko txostena eginen du, onesteko aurkeztu aurretik.

3. Erregelamendu organikoak egitura administratiboa arautu beharko du, bai eta harreman-sistema ere, eskualdeko organoen eta udalerrien artekoa, eta, kasua bada, ezartzen diren organo osagarrien artekoa ere.

4. Beren mugartean kontzejuak dituzten eskualdeetan, eskualde-sorkuntzako foru legeek kontzeju-partaidetzadun berariazko kontsulta-organo bat egotea aurreikusi beharko dute.

373. artikulua. Lehendakaritza.

1. Eratze-bilkuran bertan, eskualdeko batzarrek lehendakaria aukeratuko du bere kideen artean. Batzarreko kide guztiak izaten ahalko dira lehendakarigai.

2. Hautagaia lehendakari hautatzeko, botoen erabateko gehiengoa lortu beharko du lehen bozketan, eta gehiengo sinplea aski izanen da, berriz, bigarren bozketan. Berdinketa gertatuz gero, biztanle gehien dituen udalekoa den hautagaia hautatuko da.

3. Lehendakaria zentsura-mozio baten bidez kentzen ahalko da kargutik, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan udalerrietarako aurreikusitako moduaren antzera.

4. Lehendakariak batzarreko kide bat edo gehiago hautatuko ditu lehendakariorde izateko, eta horiek ordeztuko dute lehendakaria, izendapenaren ordenaren arabera, kargua hutsik dagoenean, lehendakaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean. Lehendakariak espresuki eskuordetzen dizkien eskudantziak beteko dituzte.

374. artikulua. Eskualdeko batzarra

1. Eskualdearen gobernua eta administrazioa eskualdeko batzarrari dagozkio. Batzarra lehendakariak eta batzarkideek osatuko dute.

2. Eskualde bakoitzerako, haren eskualde-sorkuntzako foru legean ezarriko da eskualdeko batzarreko kideen guztizko kopurua. Haien hautaketa, salbu eta sorkuntzako foru legean bestelakorik xedatzen bada, honako erregela hauei jarraikiz eginen da:

a) Batzarreko kideen bi heren eskualdea osatzen duten udaletako osoko bilkurek izendatuko dituzte, beren karguaren jabetza hartu duten zinegotzien artetik.

b) Beste herena hautatuko da egin diren azken udal hauteskundeetan alderdi, koalizio, federazio eta hautesle-elkarte bakoitzak eskualdean lortutako boto-kopuruaren proportzioan.

3. Udal bakoitzak batzarreko kide izateko hautatu beharreko pertsonen kopurua udalerriko biztanle kopuruaren arabera zehaztuko da, azken udal hauteskundeak egin ziren unean indarra zuen hautesle erroldako datuekin bat. Eskualde bakoitzak ezarriko du zein diren bere batzarrerako osaera-irizpideak, errolda horretako populazio datuen arabera.

4. Udalerriak sortu eta ezabatzen direnean, eta haien mugarteak aldatzen direnean ere, prozesuaren ondoriozko toki entitateek errealitate berrira egokitu beharko dute eskualdean duten ordezkari-tasuna.

375. artikulua. Gobernu Batzordea.

Gobernu batzordea osatuko dute lehendakariak eta bere legezko kopuruaren heren bat baino handiagoa ez den kontseilari kopuru batek. Horiek guztiak batzarkide izanen dira. Batzarrak ezarriko du Gobernu Batzordeko kideen kopurua.

Batzordeari dagokio lehendakariari laguntzea eta lehendakariak edo batzarrak eskuordetzen dizkion eskudantziak baliatzea, zeinak jaso egin beharko dira eskualdearen erregelamendu organikoan.

376. artikulua. Eskualdean lortutako boto kopuruaren arabeko hautaketa.

1. Eskualdea osatzen duten udalerrietako udal guztiak eratu ondoren, hauteskunde batzordeak, hamar egun baliaduneko epean, eskualdean zinegotziren bat lortu duten alderdi politiko, koalizio eta hautesle-elkarte guztien zerrenda bat egiten du, lortutako boto kopuruari dagokionez handienetik txikienera ordenatuta.

2. Ondoren, hauteskunde batzordeak talde politikoei eskualde bakoitzean dagozkien postuak banatuko ditu, haietako bakoitzak lortutako boto kopurua zati bat, bi, hiru edo gehiago eginda, batzarreko postu kopurura iritsi arte, eta postu horiek esleituko dizkie zatidura handienak dituzten erakundeak.

3. Alderdi, koalizio edo elkarrean zatiduretan berdinketa gertatzen bada, postu hutsa boto kopuru handiena lortu duenari esleituko zaio, eta, berdinketa gertatuz gero, eskualdean zinegotzi kopuru handiena duenari.

Modu subsidiarioan, zozketaz erabakiko da.

4. Postuak esleitu ondoren, Hauteskunde Batzordeak dei egiten die batzarrean postuak lortu dituzten erakunde politikoei, batzarreko kide izendatuak izan behar diren pertsonak hauta ditzaten eskualdeko udalerrietako zinegotzien artetik, bai eta haien ordezkioak ere.

Erakunde horiek zerrenda adostu bat aurkezten ahalko diote Hauteskunde Batzordeari, talde politiko horrek eskualdean dituen zinegotzien gehiengoaren sinadurarekin. Zerrenda horretan jasota egonen dira batzarreko kide hautatuak izateko proposatzen diren zinegotzien onarpena eta sinadura.

5. Kasuan kasuko batzarrean postuak esleitzeko, udal hauteskundeetara aurkezten diren hautesle-elkarteak elkartzen ahalko dira, bakar-bakarrik, baldin eta udal hauteskundeak egin aurretik horren berri eman badiote, idatziz, Hauteskunde Batzordeari.

377. artikulua. Udalek hautatzea.

Udalen osoko bilkurek udalei dagozkien ordezkariak izendatu beharko dituzte, udalbatza eratzeke bilkura egin ondoko lehen bilkuran, eta hautaketa egin beharko da beren karguen jabetza hartu duten zinegotzi hautatuen artetik.

Aurreko artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Hauteskunde Batzordeak eskualdeko batzarreko kide izendatu dituen zinegotziak ezin izanen dira hautatu.

378. artikulua. Eskualdeko batzarra eratzea.

1. Eskualdeko Batzarra jendaurreko bilkuran eratuko da eskualdearen egoitzan, udal hauteskundeak egin eta hiru hilabeteko epean gehienez ere.

2. Eratze-bilkuran adineko mahaiak beteko du lehendakaritza, bertan diren batzarkide adinez zaharrenak eta gazteenak osatuta. Idazkari lanean eskualdeko idazkaria arituko da.

379. artikulua. Funtzionamendua.

1. Ezertan kaltetu gabe eskualdearen erregelamendu organikoak kasuari buruz ezartzen duena, eskualdeko batzarrak bilkura arrunt bat eginen du gutxienez hiru hilean behin, eta bilkura berezia, berriz, lehendakariak deitzen duen aldiro, bere ekimenez edo kideen laurdenak proposatuta, bilkuraren gai zerrendan gai bat edo batzuk sartzeko eskaerarekin batera.

2. Bilkura berezia eskatzen denean, eskatzen denetik egiten denera bitarte ezin dira hamabost egun baliodun baino gehiago igaro.

3. Aipaturiko batzarkide kopuruak eskatzen duen bilkura berezia lehendakariak ez badu deitzen zehaztutako epean egiteko, hartarako deialdia automatikoki egina geldituko da epe hori bukatu eta hamargarren egun balioduneko hamabietarako. Toki entitateko idazkariak batzarreko kide guztiei horren berri emanen die lehen adierazitako epea bukatu eta biharamunean.

4. Deialdiari, bilkurak egiteko moduari, erabakiak hartzeko moduari, eraketarako quorumari eta bozketei dagokienez, toki araubidearen arloan aplikatzekoa den legerian xedatutakoa izanen da arau.

380. artikulua. Batzarreko kideen kargu-uztea

Batzarra osatzen duten kideen kargu-uztea kasu hauetan gertatuko da:

a) Udalbatza bateko kideak izanda, agintaldia bukatu dutenean; batzarreko kide gisa jardunean jarraitu behar dute gaien administrazio arrunterako besterik ez, karguan haien ondorengoak izanen direnak hautatzen diren arte.

b) Epai irmoagatik, heriotzagatik, desgaitasunagatik edo zinegotzi karguari edo batzarreko kide karguari uko egiteagatik. Kasu horretan, zein udaletakoa den, udal horrek, edo Hauteskunde Batzordeak, batzarreko kide berri bat izendatu behar du.

Hura izendatu zuen udalbatzaren osoko bilkurak kargutik kentzea onesten duenean, eskualdeko batzarreko kidearen kargua bide horretatik eskuratu duten ordezkarien kasuan.

381. artikulua.

Eskualdeko batzarrak eta eskualdeko lehendakariak beteko dituzten eskudantziak eta izanen duten funtzionamendua toki araubideko legerian udaleko osoko bilkurari eta alkatetzari dagokienez jasotako arauen arabera izanen dira.

382. artikulua.

Batzarreko kideek une oro bete beharko dituzte aplikatzekoa den legedi orokorrean jasotako hautaezintasun eta bateraezintasun arauak, eta behartuta daude Batzarrari jakinaraztera horietarako kausa izan litekeen edozein egitate, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 178. artikuluan eta foru lege honen 54.2 artikuluan ezarritako moduan.

383. artikulua.

Herritarren partaidetzari dagokionez, eskualdearen erregelamendu organikoak jasoko ditu, gutxienez, toki araubideari buruzko legeriako tresnak eta prozedurak.

384. artikulua.

Eskualdeen zerbitzuko langileen araubidea foru lege honen VII. tituluan xedatutakoak ezarriko du.

Eskualdeek beren berariazko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak izanen dituzte, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza dutenak”.

Hogeita hemeretzi. Xedapen gehigarri berri bat sortzen da, testu hau duena:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen 110. artikulua 1. apartatuan ezarritakoa garatuz, Nafarroako toki entitateek ahaleginak egin behar dituzte, berreskuratze aldera Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean eta artikulua hori 13/2015 Legearen bidez aldatu arte immatrikulatutako ondarea (ekainaren 24ko 13/2015 Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legea eta martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Higiezinaren Katastroaren Legearen testu bategina)”.

Bigarren artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 9. artikulua izenburua eta edukia aldatzen dira, eta testu hau izanen du:

“Eskualdeen baliabideak

9. artikulua.

1. Nafarroako eskualdeek foru lege honen 5. artikuluan aurreikusitako baliabide ekonomikoak izanen dituzte.

Tasa eta kontribuzio berezien ondoriozko tributu baliabideek lotura izan beharko dute Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 361. artikulua eskualdeei esleitzen dizkien eskumenekin.

2. Horrez gain, eskualde bakoitzak bere sorrerarako foru legeak berak esleitzen dizkion baliabide ekonomikoak ere izaten ahalko ditu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 361. artikuluan aurreikusitako kasuetan, legeria sektorialak behar adinako baliabide ekonomikoak zehaztu beharko ditu, eskualdeak bete ahal ditzan esleitutako eskumenak.

3. Eskualdeak bere gain hartutako eskumenei dagokienez, udalerriek ematen zituzten zerbitzuen gainekoak, udalerriek eman beharko dizkiote eskualdeari finantzaketan laguntzeko hitzartzen diren baliabide ekonomikoak.

4. Eskualdeen baliabideak beren betebeharrak guztiei erantzuteko erabiliko dira”.

Bi. 10. bis artikulua berria sortzen da. Hau da testua:

“Zerbitzu-mankomunitateen eta plangintza orokorrerako mankomunitateen baliabideak.

10. bis artikulua.

Plangintza orokorrerako mankomunitateek foru lege honen 10. artikuluan mankomunitateetarako aurreikusitako baliabide ekonomikoak berak izanen dituzte.

Zilegi izanen da plangintza orokorrerako mankomunitateari foru lege bidez esleitzea ematen dituen zerbitzuei dagozkien zerga-arloko kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza eskumenak”.

Hiru. 123. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“123. artikulua.

1. Nafarroako udalerriek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu bitartezko diru-sarreretan parte hartuko dute, sarrera guztien portzentaje finko bat hartuz urtero, zehaztapen hauekin bat:

a) Portzentaje hori Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen foru legerian ezarriko da, eta, behin Nafarroako Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa kenduta, kalkulatu da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean unean-unean indarrean dagoen eskumen-banaketaren arabera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.

b) Nafarroako toki entitateen artean banatu beharreko oinarria kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko dira kasuan kasuko aurrekontua onetsi aurretik Ogasun Publikoak itxitako azken kontabilitate ekitaldian izandako tributu bitartezko diru-sarrerak.

2. Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen zenbatekoa hauen bitartez banatu zaie entitate horiei:

a) Transferentzia arruntak, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak finantzatzekoak, Nafarroako Gobernuak finantzaketa moduluak ezarri dituen horietarako.

Aipaturiko transferentzien zenbatekoa modulu horiek ezartzen dutenaren arabera izanen da.

b) Kapital transferentziak, Nafarroako Gobernuak onetsitako Toki Azpiegituren Plan Zuzendariei lotutako inbertsioak finantzatzekoak, plan horietan zehazten baita kasuko zerbitzuko estrategia, udalerriaz haragoko lurralde esparrurako.

c) Libreki erabaki beharreko zenbateko bat, toki entitate bakoitzari esleituko zaiona printzipio hauekin bat: justizia, proportzionaltasuna, kohesio soziala, lurralde oreka eta finantza askatasuna. Toki entitate bakoitzak erabakiko du, bere autonomiaz baliatuz, zenbateko horren erabilera, eta aplikatzen ahalko du bai bere gastu arrunta finantzatzeko, bai azpiegituren inbertsioak finantzatzeko.

Esleipen horretarako irizpideak foru lege bidez ezarriko dira.

d) Finantzaketarako lerro espezifikoak; besteak beste, honakoak, gutxienez ere:

– Hiriburutza Agirien sistemak.

– Nafarroako toki entitateen ordezkartasuna duten elkarte edo federazioentzako laguntza ekonomikoak, Foru Komunitatean duten ezarpenaren proportzioan.

– Hautetsi-zereginetako jardunaren kontzeptuan toki entitateek ordaindutako zenbatekoen kontentsazioa.

3. Funtsaren zuzkidura, eguneratze-modua eta indarraldia ezartzen dituen foru legeak ezarriko du, halaber, banaketa-formula, zeinak kontuan hartu beharreko banaketa-aldagaiak zehaztuko baititu, artikulua honen bigarren paragrafoa c) apartatuan azaldutako printzipioetan oinarrituta.

4. Nafarroako Gobernuak onetsitako azpiegitura-plan zuzendariekin lotura duten inbertsioak finantzatzeko zenbatekoa foru lege bidez zehaztuko da lau urtean behin.

5. Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak aurrekontuei buruzko kasuko foru legeetan jasoko dira, gastuen aurrekontuko kredituetan, eta horietan kargatuko dira toki entitateen alde onartzen diren ordainketa betebeharrak, aurrekontua exekutatzeko prozedura arrunten arabera.

Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak, ekitaldi ekonomiko bakoitzean ezarritakoek, ekitaldiko azken egunean betebeharraren onarpena jaso ez dutenek, gerakin atxikiaren izaera izanen dute. Gerakin atxiki hori erabiltzen ahalko da, bakarrik, funts horri egotz dakizkiokeen aurrekontu betebeharrei erantzun behar dieten kredituen zuzkidura handitzeko.

Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak gauzatzen dituzten aurrekontu kredituak zabalgarriak izanen dira, eta haien gehikuntzak finantzatzeko bide bakarra aurreko apartatuan definitutako gerakin atxikia izanen da, hura ahitu arte, edo izaera bereko beste kreditu batzuk”.

Lau. 138. artikuluari 10. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“10. Zerga honen oinarria zehazten duten katastro-balorazioko txostenak eguneratu beharko dira onetsi edo berrikusi zirenetik gehieneko epea iragan denean, zeina ezarrita baitago Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katas-

troei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 35. artikuluan.

Arau horren urraketa ponderatzen ahalko da Toki Ogasunen Funtsaren banaketan”.

Bost. 139. artikulua bigarren apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“139. artikulua.

2. Karga-tasa % 0,25etik 0,50era bitartekoa izanen da”.

Sei. 188. artikulua bigarren apartatua aldatzen da. Hona testu berria:

“188. artikulua.

2. Karga-tasak tarte hauen barrenean egon beharko du: % 0,25 eta % 0,50 artean, etxebizitza Etxebizitza Hutsen Erregistroan agertzen den lehenbiziko urtean; % 0,50 eta % 1 artean, Erregistroan agertzen den bigarren urtean; eta %1,5, Erregistroan agertzen den hirugarren urtean eta hurrengoetan. Karga-tasa bat bera izanen da udal-erri osoan”.

Zazpi. Seigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Seigarren xedapen gehigarria.

Plangintza orokorrerako mankomunitateak, eskualdeak eta mankomunitateak, bai eta haiek beren helburuak betetzeko sortutako entitate juridikoak ere, salbuetsita egonen dira haien kide diren udal eta kontzejuek ordainarazten dituzten tributuetatik”.

Zortzi. Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak udal monte-pioen finantzaketan parte hartuko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako jasotzen diren partiden bidez. Parte-hartze hori ukatu gabe, udal monte-pioek finantzaketa osagarria jasoko dute toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, toki entitateen artean banaketa egite aldera foru lege bidez ezartzen den formula erabiliz.

Era berean, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek behar diren jarduketak eta kudeaketak eginen dituzte, Nafarroako udal monte-pioen sistema Gizarte Segurantzaren Sistemari sar dadin lortzera bideratuak”.

Hirugarren artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 34. artikuluan, 3. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta 5. apartatu berria gehitzen da, testu honekin:

“34. artikulua.

3. Balorazio txostenak “udalekoak” izanen dira udal-mugarte bakar baten lurraldearen barrenean aplikatzen direnean, eta honelakoak izanen dira:

a) Osoak, haien determinazioak mugartean kokatuta dauden ondasun higiezin guztiei aplikatzen ahal zaizkienean.

b) Partzialak, udal-mugarteko zona, poligono edo lurzati jakin batzuetako ondasun higiezin homogeen jakin batzuetara mugatzen badira edo, kasua bada, lurzati berezi batera eta bertan kokatutako ondasun higiezinetara.

Aurreko b) letran definitutako txostena prestatzea posible izan dadin, foru lege honen 35 a) artikuluan ezarritako gehieneko berrikuspen-epeak agortu gabe egon beharko du.

4. Balorazio txostenei “udalez gaindiko” deituko zaie bi udal-mugarteri edo gehiagori aplikatzen zaizkienean, eta honelakoak izanen dira:

a) Osoak, haien determinazioak udalerririk horietako mugarteetan kokatuta dauden ondasun higiezin guztiei aplikatzen ahal zaizkienean.

b) Partzialak, higiezin jakin batzuk bakarrik hartzen dituztenean, udalerririkako balorazio berezia egiteko bide eman gabe.

Eskualdeek tramitatzen dituzten udalez gaindiko txostenak “eskualde-txostenak” dira.

5. Balorazio partzialeko txostenetako determinazioak, behin onetsita, eranskin gisa gehituko zaizkio indarrean dagoen balorazio osoko txostenari.

Balorazio partzialeko txosten bakoitzeko ondasunei zuzenean aplikatzekoak izanen zaizkie haiekan jasotako determinazioak. Eta ordezkotako aplikazioak izanen zaizkie, aipatu balorazio partzialeko txostenekin kontraesanean ez dagoen orotan, balorazio osoko txostenean jasotako determinazioak”.

Bi. 36. artikuluko 9. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“36. artikulua.

9. Foru lege honen 35. artikulua balorazio txostenaren berrikuspenerako adierazitako kasuren bat gertatuz gero, Nafarroako Zerga Ogasunak udala premiatzen ahalko du aipatu proiektua egin dezan.

Hiru hilabeteko epean errekerimenduari kasu egiten ez bazaio, Nafarroako Zerga Ogasuna, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren, proiektuaren prestaketan subrogatzen ahalko da, ondasun higiezinak baloratzeko eginkizuna esleiturik duen zerbitzuko zuzendariaren ebazpen arrazoiaren bidez.

Subrogatze-ebazpena ematea salbuespenezkoa izanen da. Balorazio txostenaren berrikuspenera erakarri duen inguruabar zehatza identifikatuko du eta, betiere, frogatu egin beharko du alde nabarmen eta agerikoa dagoela katastroko balio indardunen eta ondasun horietatik merkatuan duten balioaren eta udalerririk mugakideetako izaera homogeen ondasun higiezinaren erregistro-balioen artean.

Subrogatze-ebazpena emanda eta txostenaren proiektua prestatuta daudenean, Nafarroako Zerga Ogasunak udalari bidaliko dio testua, aurreko apartatuetan ezarritakoari jarraikiz tramitatu dadin.

Baldin eta aipatu testua jaso eta bi hileko epean udalak ez baldin baditu egiten 4. apartatua adierazitako jarduketak, Nafarroako Zerga Ogasunak besterik gabe bere gain hartuko du balorazio txostena tramitatu eta onesteko falta diren urratsak egitea, eta horren berri emanen dio toki entitateari.

Zerga Ogasunak subrogazio bidez egiten duen udal balorazio txostenaren proiektua onesteko ebazpenak jasoko du lan horren kostu osoa kasuko udalari egozteko erabakia”.

Hiru. 37. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“37. artikulua. Udalez gaindiko balorazio txostenak egin, onetsi eta argitaratzea, eta horien eraginkortasuna eta aurkaratzea.

1. Foru lege honen 34.4. artikuluan aipatutako inguruabarren bat gertatuz gero, ukitutako udal-tako edozeinek nahiz Nafarroako Zerga Ogasunak eskatzen ahalko dute udalez gaindiko batzorde mistoa era dadila.

Nolanahi ere, Nafarroako Zerga Ogasunak, ukitutako udalei entzunaldia eman ondoren edo udal horietako edozeinek egindako proposamena baloratu ondoren, batzorde mistoa eratzea erabakiko du, Nafarroako ondasun higiezinak baloratzeko eskumena esleiturik duen unitate organiko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

Udalez gaindiko batzorde mistoan kide kopuru parekidea izanen da ukitutako udalen ordezkariena –udalek berek hautatuak– eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariena. Batzorde mistoko lehendakari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkarietako bat izanen da. Lehendakariaren botoak berdinketak hausteko balioko du.

Batzorde Mistoaren funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko da”.

Lau. 37. bis artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“37. bis artikulua. Eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenen egitea, onestea, argitaratzea, eraginkortasuna eta aurkaratzea.

1. Foru lege honen 34.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, eskualdeko bi udalek edo gehiagok eskatzen ahalko diote eskualdeari egin dezan eskualdeko udalez gaindiko balorazio txosten bat, haien udal-mugarateak batera hartuko dituen.

Udal bakoitzak eskaerari konpromiso argia erantsi beharko dio, proportzionalki dagozkion proiektu-egite kostuak bere gain hartzei buruzkoa. Kostu horiek kalkulatu dira aintzat harturik haren udal-mugaratean dauden ondasun higieziinei zer balio eman zaien baloratutako ondasun higiezin guztizko balioaren aldean.

2. Eskaerak jaso ondoren, eskualdea gainerako bere udalei zuzenduko zaie, adieraz dezaten egin beharreko proiektuan sartu nahi duten edo ez, eta, kasu horretan, aurreko apartatuko bigarren paragrafoan aurreikusitako konpromiso argia aurkeztu beharko dute.

Ondoren, eskualdeak txostenaren aurreproiektua eginen du. Horretarako, zilegi izanen du Nafarroako Zerga Ogasunari eskatzea haren eskuetan dagoen eta lana egiteko muntadun izan daitekeen informazio guztia.

3. Foru lege honen 34.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, eskualdeak zilegi izanen du ukitutako udalei proposatzea eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenaren proiektu bat egiteko, haien udal-mugarateak batera hartuko dituen.

Proposamena onartzean, udal bakoitzak aurreko 1. apartatuan xedatzen den konpromisoa eran-

tsi beharko du, eta ondoren bete beharko dira artikuluko honen 2. apartatuko bigarren paragrafoan adierazitako tramiteak.

4. Eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenaren aurreproiektua egin ondoren, eskualdeak hura helaraziko die ukitutako udal guztiei, azter dezaten eta adieraz dezaten testuarekin ados dauden, edo egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten, zeinak eskualdeko batzarrean jaso eta ebatziko baitira.

Udalez gaindiko balorazio txostenaren proiektuaren behin betiko edukia finkatu ondoren, eskualdeak eskatuko du proiektuan sartutako udal guztiek onespren erabakia har dezatela.

Aurreko 1. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, txostena egitea hasiera batean eskatu edo onartu zuten udaletako batek edo batzuek uko egiten badiote txostenaren esparruan sartzei, aurreproiektua edo behin betiko proiektuaren testua onetsi ondoren, txostenaren aurreproiektua edo, kasu bada, proiektua aldatzeko beharrezkoak diren lanak egiteak ekar ditzakeen kostuak egotziko zaizkie, neurri berean.

5. Eskualdeko udalez gaindiko txostenaren proiektuaren behin betiko testua aurreko puntuan xedatutakoari jarraikiz ezarri ondoren, eskualdeak jendaurrean jarriko du hogeit egunez, iragarkia jarri Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta eskualdeko nahiz ukitutako udal bakoitzeko iragarki taularan.

Interesdunek bai udal egoitza ezberdinetan bai eskualdearen egoitzan kontsultatzen ahalko dute proiektuaren edukia, eta testuari buruz egokitzat jotzen dituzten alegazio guztiak aurkezten ahalko dituzte.

6. Aurreko epea iraganik, aurkeztutako alegazio guztiak bilduko ditu eskualdeak, haiei buruzko txosten bat prestatuko du eta eskualdeko udalez gaindiko batzorde mistoa eratzei eskatuko du, egindako jarduketaren guztiak Zerga Ogasunari igortzearekin batera.

Eskaera jaso ondoren, Nafarroako Zerga Ogasunak eskualdeko udalez gaindiko batzorde mistoa eratzei erabakiko du, Nafarroako ondasun higiezinak baloratzeko eginkizunak esleiturik dituen unitate organiko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

7. Batzorde mistoa lankidetzat teknikorako organo bat da, eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenaren edukia finkatzeko eratzen dena. Kasuko eskualdearen hiru ordezkari izanen ditu, eskualdeak berak aukeratuak, eta Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioaren beste hiru ordezkari. Horietatik bi Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak aukeratuko ditu, bertako teknikarien artean, eta hirugarrena toki administrazioeko eskumena duen departamentuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkarietako bat izanen da eskualdeko udalez gaindiko batzorde mistoko burua. Boto-berdinketako kasuetan, batzordeburuaren botoak berdinketa hautsiko du.

Eskualdeko udalez gaindiko batzorde mistoaren funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko da.

8. Eskualdeko udalez gaindiko batzorde mistoak egiten diren alegazioak edo oharrak ebatzi eta eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenaren proiektuaren behin betiko edukia finkatuko du; ondoren, hura onesteko proposamen loteslea egiten dio Nafarroako Zerga Ogasunari.

Batzorde mistoa lan horiek bukatuta deseginen da.

9. Nafarroako Zerga Ogasunean ondasun higiezinak baloratzeko eginkizunak esleiturik dituen zerbitzuko zuzendariak eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostena onesteko ebazpena emanen du.

10. Balorazio txostena onesteko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Betiere adieraziko da horren eduki osoa zer tokitan dagoen hogeitau egun naturaleko epean jendaurrean ikusgai.

Horrez gain, Nafarroako Zerga Ogasunak Nafarroako Atarian ere argitaratzen ahalko du onetsitako txostena, interesdunek berehalakoan ezagut dezaten soil-soilik. Argitalpen horrek ez du inolako efektu juridikorik izanen txostena aurkartzeko epearen hasierari dagokionez, 12. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

11. Eskualdeko udalez gaindiko balorazio txostenak eraginkortasuna izanen du aurreko apartatuan aipatutako jendaurreko epea bukatu eta biharamunetik aurrera. Epe hori bukatuta, zuzenean inskribatuko da Balorazio Txostenen Erregistroan, foru lege honen 39.3 artikuluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

12. Balorazioa eskualdeko udalez gaindiko txostenaren determinazioek ukitua duten ondasun higiezinaren titularrek zilegi izanen dute balorazio horren onespeneren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea ondasun higiezinaren balorazioaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilariari, 10. apartatuan ezarritako testu osoa

jendaurrean egoteko epea amaitu eta biharamunetik hasita. Errekurtsioa aurkezteak ez du ezain kasutan ekarriko txostenaren betearaztekotasunaren eteterik”.

Laugarren artikulua. Abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legea aldatzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak gaurkotzen dituena.

Bakarra. 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Xedapen iragankor bakarra. Lurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasak.

Balioen txostena Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legeak ezarritako moduan berrikusten ez den bitartean, ukitutako udalek ehuneko 0,25etik 0,50era arteko zerga-tasak ezartzen ahalko dituzte lurraren gaineko kontribuzioan”.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legean Iruñerriko Mankomunitateaz egiten diren aipamenak Iruñerriko Eskualdeari dagozkiola ulertuko da, behin eskualde hori eratu ondoren.

Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako toki entitateek beren borondatez erabaki ahalko dute, horietako batzuen artean edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa horretarako eskuordetuz, haietan ordezkariak duten –bai funtzionarioen artean, bai lan-kontratupeko langileen artean– sindikatu-erakundeekin negoziazio-esparru sektorial bat ezartzea, berekin ekarriko duena Nafarroako toki administrazioen negoziazio mahai orokor bateratu bat eratzea.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, toki administrazioaren arloan eskudun den Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuak zerrenda bat egiten du, administrazio-araubideko aldi baterako kontrataziorako izangaia, Nafarroako toki entitateetako idazkaritza-lanpostuetako eginkizunetarakoa.

Foru Komunitatearen gaitasuna daukaten toki funtzionarioak automatikoki izanen dira zerrenda horretara gehituak; hain zuzen ere, zerrendaren hasierara.

Langile horien lehentasun-hurrenkera ezarriko da Nafarroako toki entitateetako idazkaritza-

postuetan emandako zerbitzuetan daukaten antzinatasunari erreparatuta.

Funtzionario horiek zerbitzu-eginkizunen araubidean beteko dute idazkaritza-eginkizunetako aldi baterako jarduna.

Laugarren xedapen gehigarria.

1. Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, eskualdeak eratzeko prozesu batek ukituriko toki entitate bakoitzak errola bat egin beharko du, toki entitatean betetako lanpostuen zerrenda jasoko duena. Zer eskualdetan sartzera lihoakeen, eskualde horri eskueran ipiniko zaio aipatu errola, zeina eranskin gisa gehituko baitzaio eskualde hori sortzeko foru legeari.

Erroldak aipatu beharko ditu lanpostua, kontratazio-mota eta maila. Lan-kontratudunek betetako lanpostuek identifikatu egin beharko dituzte aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta kontratatuturiko lanaldiaren portzentajea.

2. Eskualdeak, berori sortzeko foru legeak indarra hartu eta urtebeteko epean, bere plantilla organikoa zehaztu eta onetsiko du, lanpostuetako ezegonkortasun eta prekarietate egoerak pixkanaka murrizte aldera.

3. Bere plantilla organikoa onetsi eta urtebeteko epean, eskualde bakoitzak onetsiko ditu laneskaintza publikoa eta hutsik dauden lanpostuak betetzeko behar diren deialdiak, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraikiz.

Enplegua sendotze aldera, eskualde bakoitzean lanpostu bakoitzerako onesten diren lehenbiziko bi deialdiak oposizio-lehiaketako sistemaren bidez eginen dira, eta horren oinarriek bermatu beharko dute lehiaketa-faseko guztizko gehieneko puntuazioa –guztizkoaren % 30ekoa izanen baita– erdiesteko modukoa izatea, Nafarroako toki entitateetan deialdiaren xede diren lanpostuetako zerbitzu-ematean 20 urte emanda.

Bosgarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege hau gehiengo osoko legea da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua arabera.

Lehen xedapen iragankorra.

Nafarroako eskualde-mugaketa eta bertako udalerrien lurralde-banaketa, bai eta eskualde bakoitzeko populazioa, hedadura eta udalerrikopurua identifikatzen dituzten datuen laburpena ere, haien irudikapen grafikoarekin batera, foru

lege honen I. , II. eta III. eranskinetan jaso dira, hurrenez hurren.

Bigarren xedapen iragankorra.

Kasuko eskualdea sortzeko foru legeak indarra hartu eta hilabeteko gehieneko epean, Hauteskunde Batzordeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 376. artikuluan aurreikusten diren jarduketak eginen ditu, erreferentzia gisa harturik eskualdearen parte diren udalerrietan egindako azken udal hauteskundeetan izandako emaitzak.

Hauteskunde Batzordeak hautatu beharrekoak diren batzarkideak izendatu ondoren, udalek gehienez hilabeteko epean izendatu beharko dituzte beren ordezkariak, 6/1990 Foru Legearen 377. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eskualdeko batzarra jendaurreko bilkuran eratu da eskualdearen egoitzan, kasuko eskualdea sortzeko foru legeak indarra hartu eta hiru hilabetere gehienez ere.

Horretarako, adineko mahaia eratu da, ekitaldira bertaratu diren adin handieneko eta txikieneko batzarkideek osatua, eta idazkari lanetan jardunen da eskualdearen egoitza kokatuta dagoen udaleko idazkaria.

Baldin eta Hauteskunde Batzorde Probintzialen eta Eremuetakoen agintaldia amaitu bada, aurreko paragrafoek aipatzen dituzten eginkizunak Hauteskunde Batzorde Nagusiak beteko ditu.

Hirugarren xedapen iragankorra.

1. Eskualdeak sortzen ez diren bitartean, idazkari lanpostuko lanak izanen dira kontu-hartzailetzakoak ere, 244. artikuluan xedatu bezala kontu-hartzaile lanposturik ez dagoen toki entitateetan.

2. 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan, foru lege honek indarra hartzen duenean plantilla organikoan beren idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuak dituztenetan, hurrenez hurren, lanpostu horiek mantenduko dituzte eskualde bakoitza sortzeko foru legeak indarra hartu arte, ezertan galarazi gabe 361.1 e) artikulua bizilagun gutxiagoko udaletako idazkari edo kontu-hartzaile lanpostu propio berariazkoetarako ezartzen duena.

Baldin eta ordura arte lanpostu horiek administrazio araubidean kontratatutako langileek bete baldin badituzte, langile horiek eskualdeko langile bihurtuko dira, kasuko eskualdea sortzeko foru legeak indarra hartzen duenean dituzten kontratu baldintzetan, foru lege honen 370. eta 371. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Halere, iraungi beharreko egoera pertsonal gisa iraunen dute 1.500 bizilagun baino gutxiagoko udaletako idazkari lanpostuek, baldin eta eskualde bakoitza sortzeko foru legeak indarra hartzen duen unean Nafarroako Foru Komunitateak gaitutako funtzionarioek betetzen badituzte.

3. 1.500 biztanle baino gehiagokoak izanik foru lege honek indarra hartzen duen egunean zerbitzu administratiboen batasunen baten parte diren udalerrien kasuan, idazkaritzako edo/eta kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoak ematen jarraituko dute, hartan parte hartzen duten 1.500 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan, populazio handiagoko udalerrri aipatueta lanpostu horiek betetzen dituztenek, harik eta kasuko eskualdea eratzen den egunera arte; une horretatik aurrera, foru lege honen laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

Laugarren xedapen iragankorra.

1. Kasuko eskualdeak sortzeko bosgarren foru legea onesten denetik hiru hilabeteko epean, eta, edozein kasutan, foru lege honek indarra hartu eta hiru urteko gehieneko epean, Foru Komunitateko Administrazioak behar diren jarduketak eginen ditu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247.1 artikuluan aurreikusitako merezimendu lehiaketaren deialdia egiteko, arau horren 247.2 eta 247.3 artikuluetan sartuta eta hutsik dauden idazkari lanpostuak betetzeko, legearen 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat. Eraginkortasun administratiboko arrazoiak tarteko, eta aipatutako foru legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin bat, jabetza hartzeko data finkoa Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen beraren 245. artikuluan aurreikusitako gaikuntza eskuratu dutenentzat ezarritako bera izanen da.

2. Foru lege honek indarra hartu ondoren foru gaikuntza lortu eta aipatutako merezimendu lehiaketan betetzen ez diren idazkari lanpostuetan sartzeko onesten diren lehenbiziko bi deialdietan, eta ezertan galarazi gabe euskararen balorazio gehigarria dela-eta aplikatzekoa den araudian ezarritakoa, oposizio eta lehiaketa faseek ehuneko 70eko eta 30eko balorazio proportzionala izanen dute hurrenez hurren, eta lehiaketa faseko gehieneko guztizko puntuazioa eskuratzeko modua egon beharko da bai Nafarroako toki entitateetako idazkari lanpostuetan zerbitzuan emandako 20 urterekin, bai merezimendu horiei beste batzuk gehituta.

3. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera egiten den lehenengo deialdia ez da inolaz ere onetsiko xedapen iragankor honen lehenengo

apartatuak aipatzen duen merezimendu lehiaketa amaitzen denetik urtebete iragan baino lehenago.

Bosgarren xedapen iragankorra.

1. Foru lege honek indarra hartu eta bederatzi hilabeteko epean, Foru Komunitateko Administrazioak, behin bakarrik, behar diren jarduketak eginen ditu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247.1 artikuluan aurreikusitako merezimendu lehiaketaren deialdia egiteko, arau horren 247.2 eta 247.3 artikuluetan sartuta eta hutsik dauden B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko.

2. Lehiaketa ebatzi eta sei hilabeteko epean, B taldeko gaikuntza izan baina A mailako titulazioa duten funtzionarioek betetzen dituzten B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak A taldeari atxikiko zaizkio.

3. B taldeko funtzionario gaituek A mailako titulazioa badute, toki entitate bakoitzaren esparrura mugaturiko hautaprobak gaingiduz A taldera igo ahalko dira, horretarako jarraikiz Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 15.6 artikulua xedatzen duenari.

4. Iraungi beharreko egoera pertsonal gisa mantenduko dira B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta horietan dihardutenak badira Nafarroako Foru Komunitateak gaituriko funtzionarioak, aurreko apartatuak aipatzen dituen hautaprobak gaingidu ez dituztenak.

5. Merezimendu-lehiaketa eta maila-igoerako prozedurak amaiturik, funtzionario gaituek bete ez dituzten kontu-hartzaile postuak A taldeari atxikiko zaizkio. Atxikitze hori egin ondoren, Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 247. artikulua aipatzen duen merezimendu-lehiaketa deituko du, arau horren 247.2 eta 247.3 artikuluetan sartuta dauden kontu-hartzaile lanpostu huts guztiak betetzeko.

6. Foru gaikuntza lortzeko eta aipatutako merezimendu lehiaketan betetzen ez diren kontu-hartzaile lanpostuetan sartzeko, foru lege honek indarra hartu ondoren onesten diren lehenbiziko bi deialdietan, eta ezertan galarazi gabe euskararen balorazio gehigarriko aplikatzekoa den araudian ezarritakoa, oposizio eta lehiaketa faseek ehuneko 70eko eta 30eko balorazio proportzionala izanen dute, hurrenez hurren, eta lehiaketa faseko gehieneko puntuazioa eskuratzeko modua egon beharko da bai Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaile lanpostuetan zerbitzuan emandako

20 urterekin, bai merezimendu horiei beste batzuk gehituta.

Seigarren xedapen iragankorra.

Eskualdeak, lanpostuetako ezegonkortasun-eta prekarietate-egoerak pixkanaka gutxitzen joateko, bere plantilla organikoa eta lan eskaintza publikoa definitu eta onetsiko ditu, eskualdea sortzeko foru legeak indarra hartzen duenetik urtebeteko epean; horrekin batera, hutsik gelditzen diren lanpostuak beteko ditu, aplikatzekoa den araudian ezarritakoarekin bat.

Zazpigarren xedapen iragankorra.

Eskumen-kudeaketa konpartiturako hitzarmena (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 42.bis artikuluan aipatzen dena) beren udalarekin izenpetu ez duten kontzejuetan, eta sartuko direneko eskualdea eratu bitarte, foru lege honen 234. artikuluan aipatzen diren eginkizun publiko beharrezkoak batzordeko eta kontzeju irekiko kide batek beteko ditu, zeina horretarako gaituko duten organo horiek.

Zortzigarren xedapen iragankorra.

1. 2019ko abenduaren 31 baino lehen, Nafarroako Gobernuak finantzaketa proposamen bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gaur egun jasotzen diren diru-laguntza finalisten ordezkari Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikuluko 2. a) apartatua aurreikusitako finantzaketa moduluak ezartzeko pixkanaka. Proposamen horretan toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak finantzatzeko diru-laguntzak ere sartuko dira, haien legeria sektorialarekin bat, eta zehazki gai hauetan:

a) Nafarroako toki entitateen montepioak, haien pasiboei dagozkien betebeharrak behin betiko azkendu arte, bai Nafarroako toki entitateen montepio orokorraren kasuan bai Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalek dituzten montepio berekien kasuan.

b) Eskola-kontzentrazioen eta hezkuntza-erabilerarako udal eraikinen mantentzea, garbiketa eta atezaintza, bai eta bestelako funtzionamendu-gastuak ere.

c) Musika eskolak kudeatzea.

d) Lehen mailako haur hezkuntzako (0-3 urte) ikastetxeen kudeaketa, mantentzea, garbiketa eta atezaintza, bai eta ikastetxe horien kudeaketak sortutako bestelako funtzionamendu-gastuak ere.

e) Udal kontsultategi medikoetako mantentze-lanak, garbiketa eta bestelako funtzionamendugastuak.

f) Jarduera ekonomikoen poligonoak kudeatzea.

g) Iruñerriko garraio publikoa kudeatzea.

h) Udal liburutegiak kudeatzea.

i) Artxibo historikoak mantentzea.

2. 23/2014 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria aplikatuz, artikuluko honen a) letran aipatzen diren gaien, edo berekiak direnez bestelakoan, eta eskuordetzaz esleitutakoan gaineko eskumenak toki entitateei esleitu ahala, eta esleipen horrek dakartzan finantzaketa beharren arabera, xedapen honetako aurreko apartatua aipatzen denarekin bat ezarritako finantzaketa-moduluak aldatuko dira, kasua bada, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatuko da, toki entitateen finantzaketara bideratzen den Nafarroako Zerga Ogasunaren dirusarreraren portzentajea doitzeko.

3. Nolanahi ere, aipatutako portzentaje hori zehaztasunez ezartzeko, hasiera batean oinarritzat hartuko da transferentzia arruntengatik, kapital transferentziengatik eta departamentuetako bakoitzean ezarritako transferentzia finalistengatik Nafarroako toki entitateek 2018ko aurrekontuan jaso behar dituzten kopuruen guztizko batura.

Hasierako portzentaje hori handitu edo txikitu egingen da, foru lege honek indarra hartu ondoren aurreko puntuan xedatutakoarekin bat egiten diren lege aldaketetan ezartzen den eskumen banaketaren arabera.

Bederatzigarren xedapen iragankorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenean lurraren kontribuzioaren tasa Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 139. artikuluan ezarritako gutxienezkoa baino baxuagoa duten udalerriek, foru lege honen bigarren artikuluaen bosgarren zenbakian ezarritako terminoetan, bost urteko epea izanen dute tasa igotzeko, aipatutako 139. artikuluan ezarritako tartean kokatzeraino.

Hamargarren xedapen iragankorra.

Nafarroako Gobernuaren ardurapean uzten da foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean tramiteak egiten hastea maiatzaren 17ko 33/2010 Foru Dekretua aldatzeko –zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen eskualdeak ezarri baitziren–, foru dekretu hori foru lege honen xedapenetara egokitzeko, koherentea

izan dadin osasun-arloko zonifikazio indardunarekin. Kasuren batean koherentzia hori posible ez balitz eskualde-banaketaren zirkunstantzien ondorioz, eskualdeen arteko hitzarmenaren bideak beharko du koherentzia hori ziurtatu izaera sozio-sanitarioko gizarte-programen aplikazioan.

Aldaketa hori egin arte, aipatu foru dekretuan ezarritako oinarritzko eskualdeak operatiboak izanen dira.

Era berean, Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentua epe horretan berean eta Zerbitzu Sozialetako Departamentuarekin elkarlanean hasi beharko da oinarritzko gizarte zerbitzuen kudeaketa finantzatzeko proposamen bat aztertu eta definitzen, zerbitzu horien eskumen banaketaren arabera.

Hamaikagarren xedapen iragankorra.

Nafarroako toki entitateek, lege honek indarra hartzen duenetik hasi eta bost urteko epean gehienez ere, ematen dituzten zerbitzuen kostuei buruzko kontabilitate-analisia egiteko sistema bat jarri beharko dute, eta horren emaitzak erreferentzia gisa erabiliko dira zerbitzu horietarako finantzaketa-modulu desberdinak ezartzeko.

Hamabigarren xedapen iragankorra.

Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen lehen xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritako epeak, hondakinen ente publikoa sortzekoak, foru lege honek indarra hartzen duen dataren erreferentzia izanen du. Aipatutako xedapenaren edukiaren gainerakoak indarra izaten jarraituko du harik eta, kasua bada, Nafarroako hiri hondakinen tratamendurako egungo partzuergoa ordeztan

duen plangintza orokorrerako mankomunitatea eratzen den arte.

Lehen xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Bigarren xedapen indargabetzailea.

Indargabetu egiten dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen lehen eta laugarren xedapen gehigarriak.

Hirugarren xedapen indargabetzailea.

Indargabetu egiten dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen eta hirugarren xedapen gehigarriak, eta lehen, hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak.

Azken xedapenetako lehena. Arau-garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak egiteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Halere, lurraren kontribuzioaren eta bizilagunik gabeko etxebizitzaren gaineko zergaren karga-tasei buruzko aurreikuspenek indarra hartuko dute foru lege honen zortzigarren xedapen iragankorrak aipatzen duen finantzaketa-proposamena onetsi ondoren.

I. eranskina

ESKUALDEA: "Iruñea". AZPIESKUALDEA: "Metropialdea".	
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ANTSOAIN	10.752
ARANGUREN	10.239
BARAÑAIN	20.124
BERIAIN	3.894
BERRIOBEITI	6.872
BERRIOZAR	9.874
BURLATA	18.591
ZIZUR	3.784
GALAR	2.194
UHARTE	6.917
NOAIN (ELORTZIBAR)	8.115
ORKOIEN	3.910
IRUÑA	197.138
TIEBAS-MURU ARTEDERRETA	613
EGUESIBAR	20.417
ATARRABIA	10.217
ZIZUR NAGUSIA	14.686
	<hr/>
	348.337

AZPIESKUALDEA: "Ibarrak"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ANUE	477
ATEZ	227
BELASKOAIN	123
BIDAURRETA	169
OLTZA ZENDEA	1.853
ZIRITZA	137
ETXARRI	80
ESTERIBAR	2.629
ETXAURI	602
EZKABARTE	1.797
GOÑI	169
ITZA	1.192
JUSLAPEÑA	550
LANTZ	153
ODIETA	362
OLAIBAR	363
ULTZAMA	1.661
OLLARAN	399
ZABALTZA	294
	<hr/>
	13.237

ESKUALDEA: "Bidasoa"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ARANTZA	623
BAZTAN	7.736
BEINTZA-LABAIEN	232
BERA	3.763
BERTIZARANA	591
DONAMARIA	434
DONEZTEBE	1.732
ELGORRIAGA	203
ERATSUN	154
ETXALAR	808
EZKURRA	154
IGANTZI	626
ITUREN	519
LESAKA	2.737
OIZ	130
SALDIAS	119
SUNBILLA	675
URDAZUBI	394
URROZ	185
ZUBIETA	308
ZUGARRAMURDI	232
	<hr/>
	22.355

ESKUALDEA: "Zangozeria"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
OIBAR	800
KASEDA	975
GAZTELUBERRI	17
ESLABA	118
EZPOROGI	44
GALIPENTZU	99
XABIER	102
LEATXE	35
LERGA	70
LEDEA	301
IRUNBERRI	1.336
PETILLA ARAGOI	34
ERROMANTZATUA	180
ZARE	151
ZANGOZA	5.002
ESA	291
	<hr/>
	9.555

ESKUALDEA: "Lizarraldea" AZPIESKUALDEA: "Jurramendi"		OLEXOA	
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017		
ABAIGAR	88	OTEITZA	922
ABARZUZA	524	PIEDRAMILLERA	37
ABERIN	358	JAITZ	113
AGUILAR KODES	72	SANTSOL	102
ALLIN	853	SORLADA	52
ALLO	980	TORRALBA DEL RÍO	110
AMESKOABARRENA	750	TORRES DEL RÍO	128
ANTZIN	357	DEIERRI IBARRA	1.513
ARANARATXE	74	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN	115
ARELLANO	159	VILLATUERTA	1.178
ARMAÑANTZAS	60	ZUÑIGA	108
ARROITZ	1.044		58.514
AIEGI	2.346	AZPIESKUALDEA: "Lizarraldeko Erribera"	
AZUELO	34	UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
BARBARIN	58	ANDOSILLA	2.718
BARGOTA	276	ARAS	163
CABREDO	101	CÁRCAR	1.038
DESOIO	79	ELIZAGORRIA	193
DEIKAZTELU	612	LERIN	1.654
EL BUSTO	62	LODOSA	4.730
ESPRONTZEDA	108	MENDABIA	3.570
LIZARRA	13.707	SAN ADRIÁN	6.214
ETAIU	70	SARTAGUDA	1.316
EULATE	289	SESMA	1.152
GENEVILLA	76	VIANA	4.078
GESALATZ	454		26.826
IGUZKITZA	338	ESKUALDEA: "Larraun-Leitzaldea"	
LANA	166	UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
LAPOBLACIÓN	125	ARAITZ	523
LARRAGOA	104	ARANO	110
LEGARIA	98	ARESO	261
LEZAUN	252	BASABURUA	850
LOS ARCOS	1.104	BETELU	346
LUKIN	128	GOIZUETA	717
MARAÑÓN	51	IMOTZ	430
MENDAZA	301	LARRAUN	974
METAUTEN	285	LEITZA	2.856
MIRAFUENTES	56	LEKUNBERRI	1.502
MORENTIN	126		8.569
MUES	82		
MURIETA	334		
NAZAR	39		
OKO	77		

ESKUALDEA: "Pirinioak"	
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ABAURREGAINA	124
ABAURREPEA	34
ARIA	53
ARIBE	41
AURITZ	244
BURGI	209
ERRO	789
ESPARTZA-ZARAITZU	79
EZKAROZE	313
GALOZE	104
GARAIOA	89
GARDE	148
GARRALDA	184
GORZA	44
HIRIBERRI	110
IZABA	429
ITZALTZU	48
JAUURIETA	186
LUZAIDE	387
NABASKOZE	145
OTSAGABIA	534
ORBAIZETA	200
ORBARA	38
ORONTZE	48
ORREAGA	21
ERRONKARI	213
SARTZE	64
URZAINKI	85
UZTARROZE	146
BIDANKOZE	95
	5.204

ESKUALDEA: "Pirinioaurrea"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
AGOITZ	2.561
ARTZI	271
IBARGOITI	247
IZAGAONDOA	183
LIZOAIN-ARRIASGOITI	295
LONGIDA	303
ELO	479
OROTZ-BETELU	149
UNTZITI	217

URRAULGOITI	144
URRAULBEITI	305
URROTZ-HIRIA	385
	5.539

ESKUALDEA: "Erribera"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ABLITAS	2.514
ARGUEDAS	2.300
BARILLAS	218
BUÑUEL	2.232
CABANILLAS	1.366
CASCANTE	3.780
CASTEJÓN	4.116
CINTRUÉNIGO	7.839
CORELLA	7.640
CORTES	3.137
FITERO	2.034
FONTELLAS	963
FUSTIÑANA	2.466
MONTEAGUDO	1.078
MURCHANTE	3.944
RIBAFORADA	3.704
TUTERA	35.298
TULEBRAS	123
VALTIERRA	2.384
	87.136

ESKUALDEA: "Erriberagoiena"

UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
AZAGRA	3.843
CADREITA	2.028
FALCES	2.313
FUNES	2.482
MARTZILLA	2.828
MILAGRO	3.400
AZKOIEN	5.828
ALESBES	2.845
	25.567

ESKUALDEA: "Sakana"


UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ALTSASU	7.419
ARAKIL	947
ARBIZU	1.119

ARRUAZU	101	MURUZABAL	241
BAKAIKU	345	OBANOS	906
ERGOIENA	399	GARES	2.805
ETXARRI ARANATZ	2.464	TIRAPU	45
IRAÑETA	174	UKAR	183
IRURTZUN	2.183	UTERGA	164
ITURMENDI	398		12.967
LAKUNTZA	1.262		
OLAZTI	1.518		
UHARTE ARAKIL	828		
URDIAIN	671		
ZIORDIA	357		
	20.185		
ESKUALDEA: "Izarbeibar-Novenera"			
UDALERRIA	POPULAZIOA 2017	UDALERRIA	POPULAZIOA 2017
ADIOS	155	BARASOAIN	650
AÑORBE	543	BEIRE	298
ARTAXOA	1.658	CAPARROSO	2.724
ARTAZU	117	ZARRAKAZTELU	2.491
BERBINZANA	605	GARINOAIN	456
BIURRUN-OLKOTZ	207	LEOTZ	232
ZIRAUKI	478	MÉLIDA	718
ENERITZ	293	MURILLO EL CUENDE	659
GIRGILLAO	76	MURILLO EL FRUTO	603
LARRAGA	2.060	ERRIBERRI	3.927
LEGARDA	110	OLORITZ	198
MAÑERU	422	ORISOAIN	85
MENDIGORRIA	1.044	PITILLAS	492
MIRANDA DE ARGÁ	855	PUIU	340
		SAN MARTÍN DE UNX	383
		SANTAKARA	868
		TAFALLA	10.638
		UXUE	171
		UNTZUE	136
			26.069

II. eranskina □ **Eskualdekako datu-laburpena**

<i>Iruæa</i>	Udalerrri kopurua	36
	POPULAZIOA 2017	361.574
<i>Bidasoa</i>	Udalerrri kopurua	21
	POPULAZIOA 2017	22.355
<i>Zangozerria</i>	Udalerrri kopurua	16
	POPULAZIOA 2017	9.555
<i>Lizarralde</i>	Udalerrri kopurua	66
	POPULAZIOA 2017	58.514
<i>Larraun-Leitzalde</i>	Udalerrri kopurua	10
	POPULAZIOA 2017	8.569
<i>Pirinioa</i>	Udalerrri kopurua	30
	POPULAZIOA 2017	5.204
<i>Pirinioaurrea</i>	Udalerrri kopurua	12
	POPULAZIOA 2017	5.539
<i>Erribera</i>	Udalerrri kopurua	19
	POPULAZIOA 2017	87.136
<i>Erriberagoiena</i>	Udalerrri kopurua	8
	POPULAZIOA 2017	25.567
<i>Sakana</i>	Udalerrri kopurua	15
	POPULAZIOA 2017	20.185
<i>Izarbeibar-Novenera</i>	Udalerrri kopurua	20
	POPULAZIOA 2017	12.967
<i>Erdialdea</i>	Udalerrri kopurua	19
	POPULAZIOA 2017	26.069
Udalerrri kopurua, guztira		272
POPULAZIOA 2017, guztira		643.234

R



B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa

ATARIKOA

Familia gizartearen funtsezko erakundeetako bat da, eta biztanleriaren gehiengo hazi, hezi eta garatzen den eremua da. Familiek, beren tipologia guztietan, eta haien aldeko politika publikoek, garapen pertsonala eta gizarte kohesioa sortzen dute.

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua xedatzen du botere publikoek familiaren babes sozial, juridiko eta ekonomikoa ziurtatzearen betebeharra dutela, bai eta seme-alabei babes integrala ematearena ere. "Familia" kontzeptua azken urteetan dibertsifikatzen joan da, Konstituzioaren testuak aipatzen duen babesa aitortuta eta bermatuta eduki behar duten eredu desberdinak jasoz. Familia-mota ezberdinen artean, familia gurasobakarrak aurkitzen ditugu, zeinak nabarmen ugartu baitira azken urteetan, bai Nafarroako Foru Komunitatean, bai herrialde osoan ere. Familia-mota hau, gehienetan, ahuldade-egoeran edo gizarte bazterketarako arriskuan aurkitzen da. Egoera horrek eragin berezia du emakumeengan eta adingabeengan, bai eta haien zaintzapean dauden mendeko pertsonengan ere, eta larriago bilakatzen da foru administrazio publikoak eta

administrazio nazionalak haren izaera berariazkoa ez aitortzeagatik.

Nafarroako Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bitartez familia ugarietarako izan duten aitortzeak heldu diren ondorio positiboek foru lege honetarako inspirazio-iturri behar dute izan.

Foruaren Hobekuntzak 44. artikuluan aitortzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateak berdintasunerako politiken eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politiken arloko eskumena dauka. Familiak babesteko estrategia eta politika publiko desberdinak bermatzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko, ezinbestekoa da familia gurasobakarrak haien dibertsitate osoan definitzea eta haien aitortzearen bide egokiak ezartzea.

Familia gurasobakarrak presentzia irabazi dute azken urte hauetan, eta gehien hazi diren familia-motetako bat izatera ere iritsi dira.

Bizikidetasuna dela-eta gero eta dibertsitate handiagoa dago. Biztanleen Bizitza Baldintzen Inkestaren arabera, etxerik ohikoena bikoteak eta seme-alabek osatzen dutena da. Baina gehien ugaltu diren etxe-motak guraso bakarrekoak eta pertsona bakarrekoak dira.

INE 2017ko datuen arabera, honako hau da Nafarroako etxeen egitura: Bikotea seme-alabekin, % 34,12; pertsona bakarreko etxea, % 26,9; seme-alabarik gabeko bikotea, % 21,1; etxe gurasobakarra, % 9,08; elkarren artean familia ez diren pertsonen familia-gunea, % 3,7; bi familia-gune baino gehiago, % 1,4.

Familiaren, haurren eta nerabeen egoerari eta Nafarroako Foru Komunitateko haurren babeserako sistemari buruzko diagnostiko sozialaren arabera —zeina oinarri gisa hartu baita Nafarroako Gobernuaren Haurren eta Familien Babeserako II. Plana egiteko—, 8.632 dira beren kargura 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familia

gurasobakarrak; hots, 18 urte baino gutxiagokoak dituzten etheen % 12 dira. Familia horiek bazterketa sozialeko arriskurik handieneko taldeetako bat bihurtu dira, dela enplegua lortzearekin zerikusia duten arazoengatik (soldaten arrakalarekin hertsiki lotutakoak), dela lanaren eta familiaren bateragarritasunari dagozkionengatik, dela kolektibo horren beharrezan erantzuteko zerbitzu publiko ezinbestekoen eskuratzea bermatzen duen politikarik ezagatik. Foru lege honek sustatzen duen aitorenak aurrerapausoak emateko aukera emanen du adingabeen, mendekotasuna dutenen eta emakumeen babes sozialean.

Foru lege honek beste autonomia erkidego batzuetan jadanik egin diren aurrerapenak jasotzen ditu; bereziki, Valentziako Erkidegoan Consellaren azaroaren 22ko 179/2013 Dekretuaren bidez gauzatutakoa —dekretu horrek, izan ere, familia gurasobakarraren izaeraren aitortpena arautzen du Valentziako Erkidegorako— eta Kataluniako Erki-degoko Familiei Laguntzeko uztailaren 4ko 18/2003 Legean jasotakoa. Egiazki eraginkorra izateko, familia gurasobakarren aitorenak erantzun egin behar die haiek direla-eta aipagai ditugun kasu desberdinei; izan ere, gutxienez ere bi mota desberdin aurkitzen ditugu: familia-osaera zehatz bati erantzuten diotenak eta, egoera zehatz baten arabera, bazterketa-egoeran edo bazterketa pairatzeko arriskuan egon daitezkeenak, familia gurasobakarrek bizi ahal dituztenen antzekoak.

Horretarako, foru lege honek bi familia-mota bereizten ditu. Lehenbizi, guraso bakarra duten familia gurasobakarrak, egoera horren arrazoiak zein diren ere (familia horren jatorrian hartutako erabaki bat, heriotza, desagerpena, guraso-ahalaren galera eta abar). Eta bigarrenik, “guraso bakarreko egoera”n dauden familiak, seme-alabek eta bi gurasoek osatuak, baina une jakin batzuetan familia gurasobakarrek dauzkaten antzeko ahuldade-baldintzetan egon daitezkeenak. Foru lege honek kasu horiek zein diren zehazten du.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea.

1. Foru lege honen helburua da zehaztea zer baldintza bete beharko diren familia gurasobakarraren izaera edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko.

2. Dokumentazioa familia osatzen duen pertsona bakoitzarentzat jaulkiko da, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa.

3. Foru lege honek ezarritako laguntzak erregelamenduz finkatuko den per kapita errentaren arabera arautuko dira.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie honako baldintza hau betetzen duten familia guztiei: beren kideek eskabide-aurkezpenaren egunera arteko aldia Nafarroako Foru Komunitateko egiazko egoiliar gisa igaro izana, etenik gabeko urtebetez, gutxienez ere.

3. artikulua. Familia gurasobakarraren eta gurasobakartasun-egoerako familiaren kontzeptuak.

1. “Familia gurasobakar”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren batekoa:

a) Pertsona batek eta haren seme-alabek osatua, Erregistro Zibilean pertsona hori guraso bakartzat inskribatuta duela.

b) Alarguntasun-egoeran edo horren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek eta berak pertsona zendu edo desagertuarekin izandako seme-alabek osatzen dutena.

c) Pertsona batek eta horren seme-alabek osatuta dagoena, baldin eta guraso-ahala modu eskusiboan badu.

d) Pertsona batek eta urtebeterako edo gehiagorako harreran hartuta dituen adingabeek eta lehenago harrera iraunkorrean egon diren adindunek osatzen dutena.

2. “Gurasobakartasun-egoerako familia”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren batekoa:

a) Seme-alaben zaintza eta jagoletza eskusiboki gurasoetako batek dueneko, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

b) Familia bat non bere kargura seme-alabak dituen pertsonak beste gurasoengandik genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat urtebetez edo gehiagoz espetxeratuta daukana, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

d) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bati Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo

baliaezintasun handia aitortu dionekoa, baldin eta familia-unitatearen dirusarrerek ez badute 1,7 aldiz gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute mendekotasun handiko edo baliaezintasun handiko egoeran ez dagoen pertsonak eta haren seme-alabek.

3. Alargun batek edo horren egoeraren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek inongo kasutan ere ezin izanen du lortu "familia gurasobakar" tituluaren onuradunaren izaera, baldin eta epai irmoz zigortua izan bada giza hilketako dolozko delitu batengatik, hilketa horren biktima izan zenean pertsona hura (bikotea edo bikote ohia) zeinarekin ondorengoak partekatzen baitzituen, edo pertsona hura zeinarekin antzeko afektibitate-harreman baten bidez lotuta baitzegoen.

4. artikulua. Familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun-egoerako familiaren egiaztagiria lortzeko baldintzak eta betekizunak

1. Seme-alabek bete beharreko baldintzak, familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko edo mantentzeko.

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea: 1. 21 urte baino gutxiagoko adina izatea. Muga hori 26 urtera arte luzatuko da, baldin eta lanpostu bat lortzea xede duten ikasketak egiten ari badira. 2. % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua, mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia izatea, adina edozein dela ere.

b) Gurasoarekin bizitzea. Ulertzen da bi urte edo denbora laburragoko bereizte-aldi iragankorrrak ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza –nahiz eta bereizita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan–, baldin eta bereiztearen arrazoiak bada ikasketak egitea, lana, tratamendu mediko bat, errehabilitazioa edo antzeko beste arrazoi batzuk, horien barne direla ezinbesteko kasuak, gurasoak edo seme-alabak kartzelan sartzea edo adingabeen erantzukizun penalaritari buruzko araudiari jarraikiz zentro batean barneratzea.

c) Ekonomikoki gurasoaren mendekoa izatea. Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabek, bakoitzak bere aldetik, diru-sarreretan ez dutenean lortzen OAEAParen % 100 baino gehiagorik, urtebeteko kontaktetan eta aparteko soldatak barne. Ez dira kontatuko zurtasun-pentsioetatik heldutako diru-sarrerak.

2. Familia gurasobakar batek edo gurasobakartasun-egoerako batek bere izaera galduko du honako kasu hauetakoren batean aurkitzen den uanean:

a) Familia-unitatearen burutza duen pertsona ezkontzea edo hark izatezko unitate bat eratzea, indarreko legeriari jarraituz.

b) Familia-unitatearen burutza duen pertsonak ez betetzea foru lege honetan ezarritako baldintzetatik edozein.

5. artikulua. Familia gurasobakarraren eta gurasobakartasun-egoerakoaren kategoria:

Foru lege honetan jasotzen diren onurak eta abantailak emateari dagokionez, familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun-egoerakoak bi kategoriatan sailkatzen dira:

a) Berezia

1. Hiru seme-alaba edo gehiagoko familiak.

2. Seme edo alaba bakarreko familiak, baldin eta familia-unitateak urtean lortzen dituen dirusarrerek ez badute gainditzen Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren (ERREGEROSNA) adierazlea.

3. Bi seme-alabako familiak, aitortuta badaukate % 33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

4. Bi seme-alabako familiak, baldin eta familia-unitateko buruak aitortuta badauka % 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua, mendekotasun handia, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

5. Genero-indarkeria jasan duen emakume batek osaturiko familiak, apirilaren 15eko 14/2015 Foru Legearen arabera.

b) Orokorra: 3. artikuluko baldintzetakoren bat beteta ere, aurreko apartatuan deskribatutako egoeretan ez dauden pertsonak.

II. KAPITULUA

Familia gurasobakarrei edo gurasobakartasun-egoeran daudenei aitorturiko onurak eta abantailak

6. artikulua. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako babes-ekintza.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren etapa guztietan, familia gurasobakarrei edo gurasobakartasun-egoeran daudenei berariazko baremoak aplikatuko zaizkie liburu, eskola-material, jantoki eta garraiorako laguntzak eta bekak ematerakoan.

7. artikulua. Unibertsitate-hezkuntzako babes-ekintza.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoeran dauden familien unibertsitate-hezkuntzarako laguntzak. Familia horiek beka bereziak izanen dituzte irakaskuntzako, joan-etorrietako eta ostatuko gastuak ordaintzeko.

8. artikulua. Hobari-sistema.

Nafarroako Gobernuak gizarte-etxe, aterpetxe, toki-kanpaleku eta aisia-jardueren tarifetarako hobari-sistema bat garatuko du familia gurasobakar edo gurasobakartasun-egoerakoentzat, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoen mendekoak izan eta Foru Komunitatean garatzen diren ondusun kultural eta kirol- eta aisia-jardueretarako irispidea izateko ere.

9. artikulua. Garraio publikorako eta eskola-garraiorako hobariak.

Garraio publikoaren eta eskola-garraioaren erabilerarako hobariak aurreikusiko dira familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerakoen kideentzat.

10. artikulua. Neurri sozialak eta osasun-arlokoak.

Nafarroako Gobernuak familia gurasobakarrentzako edo gurasobakartasun-egoeran dauden familientzako laguntzak edukiko ditu ortodontziako, entzumenerako, oftalmologiako, ortopediako, psikologiako, pedagogiako edo etxez etxeko laguntza zerbitzuetako tratamenduen ondoriozko gastuei aurre egiteko.

11. artikulua. Etxebizitza-arloko babes-ekintza,

Babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioetan, zeinetan aginduzkoa den deialdi publikoa ateratzea eta baremoak aplikatzea, berariaz puntuatuko da eskatzailea familia gurasobakarra edo gurasobakartasun-egoeran dagoen familia izatea.

12. artikulua. Neurri fiskalak.

Arlo fiskalean, familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerakoen trataera izanen da Nafarroan araudiak familia ugarietara aitortzen dien bera.

13. artikulua. Bestelako onura eta abantailak.

Aurrekoetz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onura eta abantailak sustatuko ditu "familia gurasobakar" titulua duten edo gurasobakartasun-egoeran daudenentzako, hala Administrazio publikoen arloan nola enpresa pribatuenean.

III. KAPITULUA

"Familia gurasobakar" titulua aitortzeko eta jaulkitzeko prozedura

14. artikulua. Prozeduraren hasiera.

"Familia gurasobakar" titulua aitortzeko eta jaulkitzeko prozedurak hasiko dira legezko gaitasuna izan eta familia-unitateko kide den edozein pertsona eskatuta.

15. artikulua. Eskaera-eredua.

Eskaerak egin ahalko dira inprimaki normalizatuak erabiliz, familiaren arloan eskudun den departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituenak.

16. artikulua. Dokumentazio orokorra, 3. eta 4. artikuluetan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharrekoa.

1. Dokumentazio orokorra:

a) Eskaera-inprimakia, behar den moduan beteta.

b) Datu pertsonalen egiaztagiria:

I. Nazionalitate espainiarra duten pertsonak: eskatzailearen eta familia-unitateko kide diren 14 urte baino gehiagoko seme-alaben nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

II. Atzerritarrak: atzerritarraren identifikazio-zenbakiaren (AIZ) kopia, edo hura kontsultatzeko baimena, edo familia-unitateko kide diren pertsona guztien pasaportearen edo Erregistro Zibileko hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentu guztiek indarrean egon beharko dute.

Eta gaztelaniaz ez badaude, kopia aurkeztu beharko da, ofizialki homologatua, eta gaztelaniazko itzulpena.

III. Familia-liburu osoaren edo familia-liburu osoen kopia konpultsatua edo adopzio, tutoretza edo familia-harrerari buruzko epai, notario-akta edo ebazpen administratiboa.

IV. Familia-unitatea osatzen duten pertsonen erroldatze-ziurtagiria, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

V. Erantzukizunpeko adierazpena, seme-alabek OAEAP baino gehiagoko diru-sarrerarik ez jasotzeari buruzkoa, aparteko ordainsariak barne.

2. Aurkeztu beharreko berariazko dokumentazioa, aurreko puntuan adierazitako dokumentazio orokorrak gainerakoa.

3.1 artikuluan jasotako familia-egoeren arabe-
ra, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak
gainera:

a) Seme-alabak Erregistro Zibilean guraso
bakarrekin soilik inskribatuta egoteari buruzkoa:
Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor
bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkon-
du ez izateari buruzkoa.

b) Alargunak edo baliokidetzat jotako egoeran
dagoen pertsona batek seme-alabekin osatuta-
koa: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egon-
kor bat (edo izatezko bikote bat) ez osatzeari eta
beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruz-
koa. Hil egin den aurreko ahaidearen heriotza-
ziurtagiriaren kopia, familia-liburuan jasota ez
badago.

c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago
harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebaz-
pen administratibo edo judizialaren bitartez, urte-
beterako edo gehiagorako. Erantzukizunpeko
adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta
beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruz-
koa. Harrerari buruzko ebazpen administratibo
edo judiziala, haur-gaietan eskudun den
zuzendaritza nagusiak emana. Dokumentazio hori
ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komu-
nitateko harrerako familien kasuan.

3.2 artikuluan jasotako familia-egoeren arabe-
ra, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak
gainera:

a) Aitak edo amak seme-alaben zaintza edo
jagoletza eskusiboa edo erabatekoa duenean:
Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor
bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkon-
du ez izateari buruzkoa.

b) Familia bat non seme-alabak bere kargura
dituen amak genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz. Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 4. artikuluan aitortutako arauen araberrako egiaztatzea; horrez gain, salbuespen-izaerarik gabe, honako hauen txosten teknikoak gehituko dira: 1. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoaren oinarritzko laguntzako gizarte zerbitzuak. 2. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko osasun zerbitzuak. 3. Osasun mentaleko zentroak. 4. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko harrera zerbitzuak. 5. Emakumeentzako laguntzarako udal zerbitzuak, arreta integralerako profesionalak dituztenak. 6. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako batek men-
dekotasun handiko edo baliaezintasun handiko
egoera aitorturik duenean. Gizarte Segurantzako
Instituto Nazionalak jaulkitako baliaezintasun han-
diaren ziurtagiria edo mendekotasun handiko gra-
dua aitortzen duen ebazpen administratiboa, auto-
nomia pertsonala sustatzearen eta
mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun
den departamentuak emana.

d) Gurasoen egoera zaintza partekatukoa
duenean: Egoera hori egiaztatzen duen epai judi-
ziala.

a), c) eta d) letretako kasuetan PFEZaren
azken aitortpena ere aurkeztu beharko da.

3. Aurkeztu beharreko berariazko dokumenta-
zioa, 4. artikuluan ezarritako familia-egoeraren
arabera.

a) Ezarritako adina luzatzea, ikasketak direla
eta: Arrazoi horrengatik titulu horri eustekoak diren
personak egiten ari diren ikasketei buruzko egiaz-
tagiria.

b) % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila:
Desgaitasunari buruzko ebazpena, Nafarroako
Foru Komunitateko desgaitasunaren arloko departa-
mentu eskudunak emana. Maila eta irautze-
data agertu beharko dira, kasua bada, edo hari
buruz kontsulta egiteko baimena.

c) Mendekotasun handia edo baliaezintasun
handia: Gizarte Segurantzaren Instituto Naziona-
lak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria
edo mendekotasun handiko egoera aitortzen duen
ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala
sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren
arloan eskudun den departamentuak emana.

d) Lan egiteko ezintasunaren aitortpena: Lan
egiteko ezintasunari buruzko ebazpena, Gizarte
Segurantzaren Instituto Nazionalak emana. Maila
eta irautze-data agertu beharko dira, kasua
bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

17. artikulua. Non aurkeztu.

Familia gurasobakarraren titulua emateko,
berritzeko edo aldatzeko eskaerak, foru lege
honen 16. artikuluan ezarritako dokumentazioare-
kin batera, Nafarroako Foru Komunitateko edo
Nafarroako toki entitateetako erregistro-arloko
laguntzarako bulegoetan aurkeztuko dira, edo
eskaerak aurkeztuari begira, oro har, Administra-
zio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari
buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 arti-
kuluan aitortutako tokietatik edozeinetan.

Halaber, modu telematikoan aurkeztu ahalko
dira, Administrazio Publikoen Administrazio Proze-

dura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

18. artikulua. Espedientea izapidetzea.

Familiaren arloan eskudun den departamentuak, ezartzen den prozeduraren bitartez, egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioa foru lege honen 7. artikuluan exigitutakoa dela.

Eskaerak ez baditu exigitutako betekizunak betetzen, edo ez bazaio foru lege honen arabera exigitzekoa den dokumentazioa eransten, interesdunari aginduko zaio gehienez 10 eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo eskatutako dokumentuak aurkez ditzan. Ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aginduzkoa den ebazpena eman ondoren; ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan eman beharko da.

19. artikulua. Ebazteko eskumena duten organoak.

Aurkezten diren eskabideak helaraziko eta ebartziko ditu egitura organikoan familia-arloari dagokionez zehazten den organo eskudunak.

20. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

1. Ebazpen espresa eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, ebazteko eskudun den organoaren edozein erregistrotan eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Aipatutako epean ebazpen espresik ematen ez den kasuetan, ulertuko da eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez baietsi direla.

3. Epea eten eginen da interesdunari ohartarazten zaionean eskabideko akatsen bat zuzendu behar duela, ohartarazpen hori jakinarazten zaionetik bete egiten den arte.

21. artikulua. Titulua eta banakako txartela ematea.

1. Familia gurasobakarraren izaera egiaztatzeke, familia osoarentzako titulu kolektibo bat emanen da, bai eta hura osatzen duten pertsona bakoitzarentzako banakako txartel bat ere, foru lege honetan ezarritako ereduari jarraituz.

2. Familia gurasobakarraren titulu kolektiboak honako datu hauek eduki beharko ditu, gutxienez ere:

a) Titulu zenbakia.

b) Espediente zenbakia.

c) Familiaren kategoria.

d) Titularraren izen-deiturak eta identifikazio-agiriak.

e) Seme-alaben izen-deiturak, jaioteguna eta nortasun-agiriaren zenbakia, bai eta aitorenaren onuradun diren familia-unitateko pertsonen nortasun agiriaren zenbakia ere (halakorik baldin badute).

f) Familia-unitatearen helbidea.

g) Titulua zein egunetan eman edo, kasua bada, berritu zen.

h) Tituluaren indarraldia amaitzen den eguna.

i) Titulua jaulkitzeko eskudun den organoaren sinadura.

j) Titularraren sinadura.

3. Banakako txartelak artikulua honen 2. apartatuaren a), d), h), eta j) letretan jasotako datuak jaso beharko ditu.

22. artikulua. Eskaera eta eragin-data.

1. Familia gurasobakarraren tituluaren eskaera edozein unetan egin ahalko da, familia-unitateak hura lortzeko baldintzak betetzen dituenetik aurrera.

2. Familia gurasobakarrei emandako onurek eragina izanen dute titulu ofiziala aitortzeko edo berritzeko eskaera aurkezten den egunetik aurrera, baldin eta ematen den ebazpen administratiboa aitortze edo berritze horren aldekoa bada.

3. Familia gurasobakarraren izaera aitortzen duen tituluak bere eraginak izanen ditu emateak edo berritzeak aipatzen duen aldi osoan, edo familia-unitatea sailkatuta dagoen kategoria aldatzea bidezkoa den unera arte edo familia gurasobakarraren aitortzea izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzei uzten zaion unera arte.

4. Behin betiko titulua egin bitartean, zilegi izanen da behin-behineko tituluak egitea, ezaugarri hori adierazita, behin betiko tituluaren eduki, eragin eta baldintza berekin, baliozkotasun-epea izan ezik, zeina 6 hilabetekoa izanen baita gehienez.

23. artikulua. Bidezkoak diren errekurtsuak.

Prozedurari amaiera emanen dion ebazpena aurkaratzen ahalko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean eta Administrazio Publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko arauetan ezarritakoari jarraituz.

24. artikulua. Tituluaren indarraldia.

1. Oro har, familia gurasobakarraren tituluaren indarraldia determinatuko du seme-alabaren batek 21 urte betetzen dituen egunak, gurasobakartasun-egoera ez aldatzearen baldintzapean betiere, 4.1 eta 2. artikuluetan zehaztutako betekizunen arabera.

2. Familia gurasobakarraren tituluak indarraldi berezia izanen du honako kasu hauetan:

a) Tituluak ikasketengatik berritzen badira, tituluak gehienez 26 urtera arteko indarraldia izanen du.

b) Iraupen jakin bat duen harreraren kasuan, tituluak iraupen bereko indarraldia izanen du. Hartutako pertsonak 18 urte betetzen dituzenean, tituluak berritu ahalko da baldin eta familia-unitate berarekin bizitzen jarraitzen badu. Kasu horretan, tituluak bi urteko indarraldia izanen du.

c) Generoko indarkeriarengatik emandako tituluaren kasuan, tituluak bost urteko indarraldia izanen du.

d) Askatasungabetuta egotearen kasuan, tituluak eskatu ahalko da lehenengo urtea iragan ondoren, eta urtebeteko indarraldia izanen du.

e) Tituluak edo kategoria desgaitasun-mailaren, mendekotasun-egoeraren, lanerako ezintasunaren edo baliaezintasun handiaren arabera bada, aitoren bakoitzak ezartzen duen indarraldia izanen du.

f) Familia-unitatearen diru-sarreraren arabera bada, denean kategoria, urte bateko indarraldia izanen du.

25. artikulua. Tituluak berritzea.

Familia gurasobakarraren tituluak berritu edo bertan behera utzi beharko da, haren indarraldia amaitu denean ez ezik, tituluak jaulkitzeko edo hura ondoren berritzeko izan ziren baldintzetatik edozein aldatzen denean eta horren ondorioz kategoria-aldaketa bat gertatzen edo familia gurasobakarraren izaera galtzen denean. Halaber, berritu edo bertan behera utzi beharko da seme-alabetakoren batek familia gurasobakarreko kide gisa agertzeko baldintzak betetzeari uzten dionean, nahiz eta horren ondorioa ez izan sailkatuta dagoen kategoria aldatzea edo izaera hori galtzea.

26. artikulua. Berritzeko eskaerak.

Eskaerak egiten dira familiaren arloan eskudun den departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituen inprimaki normalizatuetan, horiei honako dokumentazio hau gehituta:

Tituluak irautsi ondoren berritzearen kasuan, foru lege honen 16. artikuluan zehaztutako dokumentazioa baizik ez da aurkeztu beharko, betekizunak betetzen direla frogatzen duena.

Inguruabar familiarrak edo pertsonalak aldatzearen ondoriozko berritzeen edo aldaketaren kasuan, aldaketa frogatzen duen dokumentazio orokorra aurkeztu beharko da, bai eta kasu jakinaren arabera behar den berariazko dokumentazioa ere.

27. artikulua. Tituluak desagertzea edo galtzea.

Tituluak desagertzen edo galtzen bada, kopia bat eskatzen ahalko da foru lege honen 25. artikuluan ezarritako eskabideen aurkezpenerako ezarritako lekuen bitartez.

28. artikulua. Komunikatzeko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharrak.

Familia gurasobakarraren tituluak aitortu zaien familia-unitateetako titularrak behartuta egonen dira familiaren arloan eskuduna den departamentuari komunikatzera inguruabar familiarretan edo pertsonaletan gertatzen diren aldaketak, gertatu eta gehienez ere hamabost eguneko epean, baldin eta horiek kontuan hartu beharrekoak badira emanda duten titulurako eskubidea aldatzearen edo azkentzearen eraginetarako.

29. artikulua. Egiatzen-ahalmenak.

Familiaren arloko eskumenak dituen departamentuak edozein unetan egiaztatuta ahalko du familia gurasobakarraren titulurako eskubidea mantentzeko inguruabarrek eta baldintzek beren horretan dirautela, eta tituluaren bertan behera uztea ebatzi eta jakinarazi ahalko du.

Familia gurasobakarraren izaera aitortu eta hari eusteko, seme-alabek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea:

Lehen. 21 urte baino gutxiagoko adina izatea.

Adinaren muga hori 25 urtera arte luzatuko da, baldin eta ziklo eta modalitate desberdinetako unibertsitate-hezkuntzako ikasketak egiten badira, goi mailako lanbide heziketako ikasketak egiten badira, unibertsitatekoen edo lanbide heziketako en maila parekideko ikasketak espezializatuak egiten badira edo lanpostu bat lortzera bideratutako ikasketak egiten badira, behar den baimena duten ikastetxe publiko zein pribatuak.

Bigarrena. Desgaitasun bat edukitzea.

Foru lege honen eraginetarako, desgaitasuna duen pertsonatzat hartuko da ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua aitortua duena.

Hirugarrena. Lanerako ezintasun bat aitortua edukitzea, adina edozein dela ere. Foru lege honen eraginetarako, lanerako ezintasuna duen pertsonatzat hartuko da lanerako gaitasuna murriztua duena ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren pareko gradu batean.

b) Aurreko ahaidearekin bizitzea.

Ulertzen da bereizte-aldi iragankorrak ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza –nahiz eta bereizita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan–, baldin eta bereiztearen arrazoa bada ikasketak egitea, lana, tratamendu mediko bat, errehabilitazioa edo antzeko beste arrazoi batzuk, horien barne direla ezinbesteko kasuak, aurreko ahaidearen edo seme-alaben askatasungabetzea edo adingabeen erantzukizun penalarri buruzko araudiari jarraikiz zentro batean barneratzea. Foru lege honen eraginetarako aurreko ahaidetzat aita edo ama hartuko dira. Aurreko ahaidearen baldintzaren parekidetzat jotzen da norberaren tutoretzapean edo familia-harreran seme-alabak edukitzea, betiere norberarekin eta norberaren kontura bizi badira.

c) Ekonomikoki aurreko ahaidearen mendekoa izatea.

Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabetako bakoitzak ez duenean jasotzen, urteko kopuruari begiratuta, urte bakoitzean indarrean den OAEAP-ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik gorako diru-sarrerarik, aparte-ko ordainsariak barne.

30. artikulua. Titulu-bateragarritasunari buruzko araubidea.

Familia gurasobakarraren titulua bateragarria da familia ugariaren tituluarekin, baina titulu horietatik heldu diren mota edo izaera bereko onurak ezin izanen dira metatu, salbu eta berriazko araudi batek kontrakoa ezartzen duenean.

31. artikulua. Datu pertsonalak babestea.

Familia gurasobakarraren titulua lortzeko eman behar diren izaera pertsonaleko datuak, foru lege honetan arautzen direnak, eragin horietarako fitxategi automatizatu batean jasoko dira. Datu horiek babestuta egonen dira; hain zuzen, Datu-pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren

27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikatzekoak diren gainerako arauen babespean.

IV. KAPITULUA Zehapen araubidea

32. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren administrazio-urraketak hurrengo apartatuan tipifikaturiko jokabideak eta gertaerak dira, baldin eta haietan doloa, errua edo besterik gabeko zabarkeria bada-go.

Alde horretatik, erantzule izanen dira urraketa gisa tipifikaturiko jokabideetakoren bat egiten duten familia-unitateko kideak.

2. Urraketak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

a) Urraketa arina izanen da organo eskudunari ez jakinaraztea familian gertatzen den edozein aldaketa, kontuan hartzekoa denean titulurako eskubidea aldatu edo iraungitzeari dagokionez.

b) Honakoak dira urraketa astunak:

1. Hiru urraketa arin egitea, zehapen irmoa ezarririk dagoenean.

2. Familia gurasobakarraren izaera lortu edo mantendu ahal izateari dagokionez foru legeak ezartzen dituen betebeharrak edo baldintzetan datuen bat ezkutatu edo faltsutzea.

3. Titulua lagatzea horren pean ez dauden beste pertsona batzuei.

4. Familia gurasobakarraren titulua bidegabeki edo abusuz edukitzea edo erabiltzea.

c) Urraketa oso astuna izanen da bi urraketa astun edo gehiago egitea, zehapen irmoa ezarririk dagoenean.

3. Izan litezkeen bestelako erantzukizunak deusetan galarazi gabe, honakoak dira aurreko apartatuan aipatzen den urraketetakoren bat egiten duten pertsonen ezartzen ahalko zaizkien zehapenak:

a) Urraketa arinengatik:

1. Banakako kargu-hartzea, idatziz.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagokien edozein eskubide bertan behera uztea, gehienez ere hilabetez.

b) Urraketa astunengatik:

1. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubide guztiak bertan behera uztea, hilabete bat baino gehiagoz eta, gehienez, sei hilabetez.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubideetatik baten bat bertan behera uztea, sei hilabete baino gehiagoz eta bi urte baino gutxiagoz.

c) Urraketa oso astunengatik:

1. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagozkien eskubide guztiak bertan behera uztea, sei hilabetetik bi urtera bitarte.

2. Onuradun izaera galtzea.

3. Ezarri beharreko zehapenak mailakatzeko, kontuan hartuko da familia gurasobakarraren titulu erabiltzeagatik lorturiko onuraren izaera eta zenbatekoa.

Xedapen gehigarri bakarra.

“Familia gurasobakar” titulua lortzeko prozeduraren araubideari buruz II. kapituluan jasotzen diren arauak erregelamendu bidez aldatzen ahaliko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Garapena.

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak, zeinak familiaren arloko esku-mena baitauka, sei hilabeteko epean emanen ditu foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

HITZAURREA

Gaur egungo gizarteak badu erreibindikazio etengabe bat: neurriak ezartzea bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitearen esparruan, errazte aldera gizonen eta emakumeen artean familia-ardurak eta ardura pertsonalak modu orekatuan banatzea eta, halaber, erantzukidetasuna sustatzea berdintasun erreala lortze aldera, emakumeen langabezia eta pairatzen duten soldata-arraila gainditzea ahalbidetzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.b) artikulua eskumen osoa esleitzen dio Nafarroari Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen hori baliatuz onetsi zen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duena, zeinaren 36.1.f) artikulua jarduneko zerbitzuan dauden funtzionarioei eskubidea esleitzen baitie ikasketa-, ezkontza- eta amatasun-lizentzia ordainduak eta norbere arazoetarako lizentzia

ordaindugabeak izateko. Aipatu artikulua bigarren apartatuak ezartzen duenez, eskubide horien egikaritzea estatutuan eta haren erregelamenduxedapenetan ezarritakoari egokitu zaio.

Guraso-baimenei dagokienez, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuak, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duenak, 16. artikuluan, gurasotasun, harrera edo adopzioagatiko lau asteko baimena ezartzen du.

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrenaren hirugarren apartatuak aldatu egin zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu publikoaren oinarrizko Estatutuaren Legearen testuateginaren 49.c) artikulua. Hartara, bost astera bitarte luzatu zen seme-alaba baten jaiotza, adopzioarako zaintza, harrera edo adopzioagatiko gurasotasun-baimena.

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 2018ko uztailaren 5eko indar-hartzearen berehalako efektua izan zen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua nondik norakoa aldatu egin zela, halako moldean non guraso ez-haurdunek gurasotasun, harrera edo adopzioagatiko 5 asteko baimena izanen baitute, aipatu foru dekretuko xedapen gehigarri bakarrari jarraikiz.

Foru lege honen xedea da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duena. Horretarako, beste xedapen gehigarri bat sartzen da, estatuko legerian araututakoaren baimen gehigarri bat arautuko duena, eta lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartzea eta erantzukidetasuna lortzera bideratutako legeko neurriak ezartzera joko duena.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina ezartzen duena.

Xedapen gehigarri bat eransten da. Hona testua:

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Gurasotasun, harrera eta adopzioagatiko baimenak eta,

lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartze eta erantzukidetasunaren aldeko neurriak:

1. Seme edo alaba baten jaiotza, adopzioarako edo harrerarako zaintza edo adopzioagatiko gurasotasun-baimena agortu ondoren, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek baimen gehigarri ordaindua izanen dute, eta horren iraupena, gehituta Estatuko oinarrizko legerian araututako gurasotasun-baimenarenari, hamazazpi asteko atsedenaldua izanen da guztira, edo kasu bakoitzean zilegi dena seme edo alabaren desgaitasunagatik eta bigarren seme edo alabaz aurrerako bakoitzarengatik, jaiotza, adopzio edo harrera anizkoitzaren kasuan.

Baimen horrek berekin dakar enpleguaren ordainsarien %100eko ordainketa, ezin izanen zaio beste gurasoari transferitu eta jarraian nahiz modu zatikatuan baliatzen ahalko da, erregelamenduz ezartzen den eran; zatikatuta hartuz gero, jaiotza, adopzio edo harreraren ondoko hamabi hilabeteen barruan.

Gurasotasun-baimen gehigarria 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina ezarriko da, eta hari atxikitzea zilegi izanen dute semea edo alaba une horretatik atzerako urtean jaio zaien gurasoek, honako ezarpen honi jarraikiz:

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2018. urtean gertatuak: 4 aste.

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2019. urtean gertatuak: 8 aste.

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2020. urtetik aitzina gertatuak: 12 aste.

Baimen gehigarria ez dago loturik oinarrizko legeriaren bidez arautzen diren bost astei dagokien baimena –jaiotza, adopzio, adopzioarako zain-

tza edo harreragatikoa– modu partekatuan baliatzearekin. Hura baimentzeko, bost aste horiek bukatu baino lehen eskatu beharko da, baimen gehigarri horren hasierako data zein ere den.

2. Behar diren urratsak eginen dira honako neurriak Nafarroako administrazio publikoen esparruan ezartzeko:

a) Telelana, halako sektoreetan non zerbitzuak ematea bateragarria baita kasuko zentro edo lantokian presentzia fisikorik behar ez duen lanaldimota batekin.

b) Orduategien bateragarritasuna eta arrazionaltasuna, lanaldia 18:00etan buka dadin, ematen diren zerbitzu publikoen izaerak horretarako bidea emanaz gero.

c) Langileen atsedenerako denboran deskonexio digitala eta lanpostuaren eginkizunetarako arretari buruzkoa ahalbidetuko duten neurriak.

d) Halaber, arreta emanen zaio, lanaldi murrizketaren kasu guztietan, orduategien egokitzapenari eta, bereziki, bertaratze-egunen egokitzapenari, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko.

Azken xedapenetan lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-ekintzan sartzeko baldintzak arau ditzan urgentziatzko familia-harrera nahiz familia-harrera espezializatua hasten direnentzat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-ekintzan sartzeko baldintzak arau ditzan urgentziatzko familia-harrera nahiz familia-harrera espezializatua hasten direnentzat”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren 166.3 artikuluan xedatutakoa-

ren babesean, sei hilabeteko epean arau ditzan kasuko autonomia erkidegoaren ebazpen administratiboaren ondorioz urgentziatzko familia-harrera nahiz familia-harrera espezializatua hasten duten pertsonak –beren ardurapeko pertsonakiko arretan erabateko lagungarritasunez jardun direnak– Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko baldintzak. Hartara, hitzarmen berezi bat sinatuko da, non hitzarmenaren aplikazio-eremua nahiz prozedura, ondorio, babes-ekintza eta kotizazio arloetako bere ezaugarri eta berezitasunak zehaztuko baitira”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait araugintza-neurri har ditzan, Nafarroako langile autonomoen kolektiboaren lan-bizitza eta familia bateragarri egitean aurrerabidea egiteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluarekin adosturik, zenbait araugintza-neurri har ditzan (fiskalak, tributu eta lan arlokoak), langile autonomoen lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eskubidean eta zaindzen ardurakidetzan aurrerabidea egiteko xedez”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko jarduketak egiteko aurrekontu-partida 10 milioi euro handitu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko jarduketak egiteko aurrekontu-partida 10 milioi euro handitu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121-A errepideko jarduketak egiteko aurrekontu-partida 10 milioi euro handitu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 20 milioi euroko obren lizitazioa egin dezan N-121-A errepidean”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Lehen Hezkuntzako ikasketak eta ordutegia arautzen dituen foru araudia alda dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Lehen Hezkuntzako ikasketak eta ordutegia arautzen dituen foru araudia alda dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzak eta ordutegia arautzen dituen foru araudia alda dezan, halako moduan non ikastetxeei behar adinako antolamendu-autonomia emanen baitzaie ikasleen aste-ko ordutegia ezartzeko eta errespetatu eginen baita oinarritzko araudian curriculum-arlo bakoitzarentzat aginduzkoa den curriculum-pisua”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2019-2020 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarritua, seme-alaben eskolatzearen hizkuntza erduei dagokienez familiei alde aurretik ezer ezarri gabe eta haiengan eragin gabe.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2019-2020 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarritua, seme-alaben eskolatzearen hizkuntza

ereduei dagokienez familiei alde aurretik ezer ezarri gabe eta haiengan eragin gabe". Mozioa Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu zuen eta 2019ko urtarrilaren 11ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza